

ARGIA



JOSE LUIS ELORZA

«ETA eta Estatuaren arteko elkarriketak ez luke zerikusirik euskaldunokin»

ATAL BERRIA

EUSKARA


Nafarroa euskalduntzeko sosak urri

J.M. RUIZ URTXEGI

«Enpresa berria sortzeko urtebete behar da hemen paperak egiten»

KIROLAK

Peio Dospitalekin V Nazioak rugby torneoaz



PELLO SALABURU

«'EAE-KO UNIBERTSITATEA' ASKOZ ZEHATZAGOA LITZATEKE»



ESKAITZA BEREZIA

ARGIA REN

HARPIDEDUNENTZAT

ARGIAren harpidedun bazter
ZEREN ZAIN ZAUDE?
 Orain, gustoko tituloa eskuratu
 dezakezu prezio ezin hobea

**gutxienez
 katean
 baino
 % 25a
 merkeago**

Nobedade honetaz gain beste
 hainbat dago aukeran. Nahikoa
 duzu dei bat egitearekin eta
 behar duzun informazioa izango
 duzu

- KATEBEGI GALDUA** 1.350 pt
- Jon Alonso
- EZ DUK ERRAZA KONPAI!** 1.300 pt
- Koldo Izagirre
- AXUN** 1.000 pt
- Abelin Linazisoro
- ZOAZTE HEMENDIK!** 975 pt
- Patri Urkizu
- AZKEN FUSILA** 1.150 pt
- Edorta Jimenez
- NON DAGO STALIN?** 1.150 pt
- Xabier Montoia
- EMAKUME BIBOTEDUNA** 1.150 pt
- Xabier Montoia
- GARTZELAKO POEMAK** 900 pt
- Joseba Sarrionandia
- BALIZKO ERROTEN ERRESUMA** 900 pt
- Koldo Izagirre

1.500 pzta.



ESKAITZA ORRIA

Izenburua	Prezioa	Kopurua	Guztira


Kobratu beharreko kantitatea

Transferentzia: Euskadiko Kutxa 3035 - 0036 - 19 - 0360030651 Ondorengo datuekin batera ingresoaren agiriaren kopia bidali behar da.

IZEN ABIZENAK _____ ZBKIA. _____ PISUA _____ LETRA _____
 KALEA _____
 TFNOA _____ HERRIA _____
 PROBINTZIA _____ HARPIDETZA ZBKIA. _____ KODE POSTALA _____


VISA / KREDITU TXARTELA SINADURA _____
 IZEN ABIZENAK _____
 TARJETA ZENBAKIA (16 digitu) _____
 KADUZITATE DATA _____ HARPIDETZA ZBKIA. _____ SINADURA _____

6. Politika kronika. PELLO ZUBIRIA.
8. Jose Luis Elorza, PSE-EEko Gipuzkoako zerrendan hirugarrena Kongresurako. «ETA eta Estatuaren arteko elkarrizketak ez luke zerikusirik euskaldunokin». MIKEL JAUREGI.
12. Hauteslerik harrapatzen ez alderdien programen amuak. JOSU ARANBERRI.
16. Berbere herriari heldu zaio berpizkunde garaia. KEBIR SABAR.
19. Jose Maria Ruiz Urtxegi, Adegia Gipuzkoako enpresari elkartearen idazkaria. «Enpresa berri bat sortzeko urtebete ibili behar da hemen paperak egiten». XABIER ARANBURU.
22. Jeltzaleak «Bultzagile» gabe Anton Irala zendu eta gero. AINHOA GERRA eta ARANTXA ERASUN.
26. Nafarroako Gobernuak hitza jan du: euskalduntze alfabetatzeak diru gutxiago jaso du. Nafar diruen hotsak. AINHOA AZPIROZ.
28. V Nazioak, rugby torneoa soilik ez. MARTIN AGIRRE.
31. Pello Salaburu: «EAEko Unibertsitatea» izen zahatzagoa litzateke». AITOR ZUBEROGOITIA.
36. Kultura kronika. J.J. PETRIKORENA.
39. Aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketa otsailaren 25ean abiatuko da Baigorriin. Inoiz baino gazteago. IXIAR ROZAS.
42. Sentimenduek ehundutako oihalak: maitasun gutunak. IDOIA TORREGARAI.
45. Argitalpenak. J.J. PETRIKORENA.
48. Irrati-telebista. ARRITXU ZELAIA.
52. Aukeran. MIKEL JAUREGI
56. Denborapasa.
58. Harreman sexualak eta HIESa. JOXE MANUEL BALENZIAGA «BALENTXI»



PELLO SALABURU: EHuko euskara errektoreorde izatetik errektoreira igaroz hasi du urtea. Aukeraketa istilutsua izan du, baina datozen lau urteetan berak zuzentzen duen Gobernu Batzordeak erabakiko ditu EHuren lehentasunak. Unibertsitate euskaldunaren erronkaz, irakasleen kontratazioaz, zinpeko zaindarien erabileraz eta deszentralizazioaz galdetu diogu guk, besteak beste. «EAEko unibertsitatea» izen errealistagoa omen da berak zuzentzen duen unibertsitaterako, «*Euskal Herriko Unibertsitatea deitzen zaio boni baina egia da Euskal Herria erkidego hau baino handiagoa dela.*» EAEko unibertsitatearen errektore nafarraren erantzunetako bat da. /31

POLITIKA: PSE-EEko Gipuzkoako zerrendan hirugarren hautagaia dugu Jose Luis Elorza. Kanpainaurrea tentsioan bizi izan dute sozialistek, militante zen Fernando Mujikaren eta oso hurbilekoa zen Tomas y Valienteren hilketek eraginda. Horretaz guztiaz, hauteskundeetaz eta gatazkarentzako irtenbide posibleez solastu dugu. /8



NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA: Otsailean abiatuko da Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Aurtengoak badakar berrikuntzarik: bi kanporaketa egin beharrean hiru egingo dira, seina bertsolariz; sailkapen-sistema aldatuko da; hiru gazte estreinatuko dira. Inoiz baino gazteago izango den honek Arozenak iaz irabazitako txapela izango du jokoan. /39

MIKEL LABOIA



FOTO: ARTURO

VICTORIA

EUGENIA

1996 EKO MARTXOAK 2, LARUNBATA

GAUEKO IO ETAN

DONOSTIA

F
E
S
T
A
R
O
A
9
6

IRAKUR- LEAK MINTZO

Lizarrako DBHaz

IKASKETAK euskaraz burutzeko demanda gero eta handiagoa izanda, hariduraz ikus dezakegu nola Administrazioak, bere azken urteetan, errealitateari muzin eginez, traba besterik ez dion ezarri D eredua sare publikoan ezartzeari, bere ikasketak euskaraz gauzatu nahi zuen oro sarre pribatura bultzatuz.

Hala ere, duela sei urte eskualde honetan zegoen beharrari erantzunez, Oncineda Institutu Publikoak bere gain hartu zuen batxilergoa euskaraz eskeintzea eta horrela lehenengo BBBtik UBiraino irakasten hasi zen. Lehen Hezkuntza euskaraz egiteko aukera arlo pribatuan izaten jarraitu zuen.

Orain bi urte Administrazioak proposatu zuen eskola mapan pribaturantz desbideratu nahi izan zuen euskal lerro osoa, DBH sare pribatuan kokatuz. Honen aurrean Oncinedako Institutoko klaustroak, euskal lerroak eta sindikaturen batzuk, bere haserrea azaldu zuten eta ahaleginak egin zituzten proposamenak aurrera egin ez zezan.

Bitartean urteak joan urteak etorri, Eskola Publikoan Lehen Hezkuntzako euskal adarrean talderen bat sortzeko hainbat gurasoren ahaleginak zapuztu ziren Administrazioak eta hainbat interres pribatuk jarritako zailtasunak medio. Azkenik iaz lortu zuten exijitutako hemezortziko kopurua beteeta eskola publikoko Lehen Hezkuntzari ekitea.

Aldaketa politikoaren ondorioz Hezkuntzak eskola maparen proposamen berria aurkeztu zuen. Proposamen honetan, eta demanda kontutan harturik Lizarran D ereduko eskaintza publiko osoa egitea erqabaki zuen. Honek ilu-

sio handiak piztu zituen euskal lerro publikoaren aldeko guraso, ikasle eta irakasleen artean, ikusten genuelako Lizarrako lerro publikoa errealitate bihurtzeko aukera zegoela.

Egun, Batxilergo Publikoko ikaslegoaren % 20a dugu gutxi gorabehera. Selektibitate atera ditugun hiru promozio osoen emaitzak ezin hobek izan dira. Aurten ingelesako Hizkuntz Eskolako titulu ofiziala zentroan bertan ateratzeko aukera eman zaie. Badugu irakaslego euskaldun, lizenziatu eta trebatua irakatsi beharreko arlo bakoitzean. Honez gainera, baliabide pedagogikoez ondo hornituriko ikastetxea dugu bertan: natur zientzia eta fisika laborategiak, informatika gela, ikusentzunezko gela... Aukerazko irakasgaien eskaintza anitza da.

Ikus daitekeenez kalitate handiko ikastetxea dugu eta non gure sorpresa jakin berri dugunean Hezkuntza Departamentua presioak jasotzen ari dela eginiko proposamena (Lizarran euskarazko lerro publiko osoa ezartzea) atzera bota dezan. Eta presioak arlo pribatutik datoz. Zer gertatuko ote da sare pribatuan DDH euskaraz bukatuko duten ikasleekin? Gauzak gaur dauden moduan jarraituz gero, ikasketak burutzeko, ezinbestean Lizarrako erdal adarrera pasatu beharra izango dute, edota Iruñera joan euskaraz ikasten segitzeko.

Honen aurrean esan beharra dugu guztion eskubidea dela euskarazko ira-

kaskuntza publikoa, dohainikakoa eta kalitatezko izatea eta botere publikoen betebeharren artean dagoela hau bermatzea. Sutsu lan egingo dugu hau horrela izan dadin eta ez dugu ametituko aipatutakoari aurre egiten dion inongo interes pribatu zein politikoren presiorik. Euskararen etorkizunak, Lizarran ere, botere publikoen errekonozimendu eta babes zuzena eskatzen du. Gure uste apala da kalitatezko konpetentziak kaltea baino mesede handiagoa ekartzen diola euskarazko irakaskuntza eta honen hedatzeari.

Berriro eskatzen diogu Administrazioari zein botere publikoei, beraz, planifikatu dezatela euskararen etorkizuna Lizarran ere, herritarren eskubideak oinarri harturik. Lizarran eskaintza publiko bat bermatzeko bitartekoak eman diezazkigutela.

LIZARRALDEA BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUKO KLAUSTROA LIZARRA (NAFARROA)

JABEA: ZERUKO ARGIA, S.A.L.
LEHENDAKARIA: Joxe Mari Irazusta.
ZUZENDARIA: Pello Zubiria.
Kontseilu Editorialeko Arduraduna: Baleren Bakaikoa.


HELBIDEAK

GIPUZKOA: Zirkuitu ibilbidea, 15.pabiloia.
20160 Lasarte-Oria.
Tlf: 37 15 45. Faxa: 37 34 03/36 10 48.
BIZKAIA: Zabalburu 2, 1. ezkerria. 48003 Bilbo.
Tlf: 410 34 34. Faxa: 410 37 15.
NAFARROA: Iratxeko Monastegia 70, 3. ezkerria.
31011 Iruñea.
Tlf: 17 80 78. Faxa: 17 80 77.

LEGE GORDAILUA: NA 80-1963.

ISSN: 0213-909X.
BATZORDE PAREKIDEA:
72562 E.

INPRIMATEGIA ETA FOTOMEKANIKA:
Antza, S.A.L.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Diputazioa
Kultura eta Euskera Departamendua



kutxa fundazioa
fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Baikortasunik gabeko ihauterietan

IHAUTERI eta hauteskunde astelehen honetan bai Euskadin eta bai Euskaditik ikusten dena ez da gertatzen optimista izateko modukoa. Bururazten zaidan lehen gomendioa errealtatea bihotzarekin ez baina begiekin ikusteko ahalegina egitekoa da, pasioarekin ez baina arrazoiarekin ikusteko esfortzua egitekoa.

Zergaitietan sartu eta erantzukizunak egozten hasi baino lehenago —erantzukizunak beti bestearenak dira eta «ez dira gaitzespenak falta ditugunak», Mariano Ferrerrek oso ongi idatzi duen bezala— diagnostikora hurbiltzeko saio batetik hasi beharko genuke.

BAIKOR izateko modukoa ez da frankismoaren bilobek Euskal Herrian beren emaitzik onenak lortzeko bezperetan gaudela jakitea. Gehiengoan proiekturik eta ilusiorik gabe, erreakzionatzeko indar propiorik gabe, dagoen gazteriaren egoerak baikortasunari lekurik ez dio uzten. Sekula ez zen hain hurbil egon Cassinelloren ametsa —euskaldunak elkarren kontra borrokatzea— egia bihurtzea.

Sekula ez zuen bakoitzak hain seguru ikusi —gauzotaz okupatzen diren gutxien artean— norberak zuela arrazoia eta bestearen arrazoia gaiztoa zela. Sekula ez zen bestearikiko inkomuni-

kazioa hain handia izan. Eta arrazoi gehiago ere bada, baina horrekin aski eta sobera bada baikor ez egoteko.

BAINA honako hau ere egia da: euskal herritarrek sekula ez zituztela beren autodeterminazioari buruzko bide propio eta demokratikoa saiatzeko baldintza hain aldekoak eduki. Sekula ez zen nazioarte mailako giroa hain aldekoa izan, eta esperientzia eta ereduak hain anitzak.

Autodeterminazioak denak inplikatu behar ditu, baina soilik nazio proiektu bat dutenek bultzatuko dute. Ereduak asko dira, baina euskaldunak antza handiagoa beharko luke Quebecoarekin Ipar Irlanda edo Korsikakoarekin baino. Autonomia hutsaren eta independentzia negoziatzaren artean, subiranotasuna dago. Hau da, Quebec.

Batzuen eta besteen kanpainak patakoan, honetaz hizketan segi behar-



ko da. Elkarrizketaz eta eztabaidaz pentsatutako guztia mesedegarria izango da. Besteari hitza kendu eta biolentziaz ordezkatzea den guztia, kaltegarria. Aste baterako eta hurrengorako balio du honek, baina M-3aren ondoren errezago ikusiko da.

JOSE FELIX AZURMENDI

AGINTE FALTAREN SINDROMEA

FERNANDO Mujika Herzog baino lehenago Gregorio Ordoñez hi zuen ETak. Francisco Tomás y Valiente baino urte gutxi aurrerago Manuel Broseta Estatu Kontseilukidea eta Carmen Tagle fiskala erori ziren. Eta egunotako zozobra giroa ez zuen bizi Espainiako Estatuak. Aspaldiko urteetan nabari ez zen bezalako aginte hutsune giroa usaindu da: histerian amildutako barne ministroaren esaldien ondoan hil aurretik ETaren afera bukatzeko ezintasuna aitortuz bere ezkortasuna adierazi zuen estatu gi-

zonaren testamentua. Politikari batek baino gehiagok, sozialistek funtsean, gaur loak hartu eta martxoaren lauean esnatzea amestuko zuten behin baino gehiagotan. Mundu guztiak erabakitzen jotzen dituen hauteskundeak nola edo hala bukatzea da kontua. Eta ondoren? Ez dirudi Olloraren ezkutetzea bi egunetarako izango denik. ETak alde batera makurtu duen balantza beste aldera berdintzea izango da lehentasuna Madrilan, eta laster ageriko dira izen zaharrek antolatutako operazio eta kolpe berriak.

PELLO ZUBIRIA



KARMELO LANDAREN TARTEA

ZER EGINGO DU HB-K MARTXOAREN 4TIK AURRERA?

Alternatiba Demokratikoari ekin

Herri Batasunak, eta modu zabalago batez, ezker abertzaleak darama inizatiba Espainiar Estatuarekiko gatazkan, eta hori ez da funtsean aldatuko martxoaren 3an izango diren hauteskunde espainiarren ondorioz. Zergatik? Batetik Estatuaren eta Euskal Herriaren konfrontazioaren esparrua gune egozian kokatzea lortu dugulako, hots, Alternatiba Demokratikoaren eduki zehatzetan —Autodeterminazioa, Lurralde-Batsuna— eta horiek lortzeko burutu beharreko negoziaketa politikoa eta horrek lekarkeen marko-aldaketa sakonean. Alternatiba Demokratikoaren plazaratzeak lortu duen eragin

eta arretak frogatzen du honen inguruko prozesuak guztiz desbordatzen duela koinuntura elektoral azalekoa, eta dimentsio askoz sakonagoa ematen diola ezker abertzaleak, batasun eta indar handiz, euskal gizartearen aurrera, baina baita espainiarren aurrera ere, ekarri duen proposamen garrantzitsu honi. Jada ikus daitekeena da, Espainiar Estatuaren indarren edota honen estrategia berean kokatuta diren indar politikoen aldetik, Alternatiba Demokratikoaren eragina estali edo ahultzeko egin dituzten zentzu laburreko maniobrak —bideoaren zentsura, HBren ilegalizazioarako mehatxuak...— ez direla arrakastatsua izan, Paktuko indarrak bereaiek nahastea besterik eragin ez dutelarik.

HBk Alternatiba Demokratikoaren sozializazio-prozesuari eutsiko dio martxoaren 4tik aurrera eta horrek ematen digun legitimitatez planteatuko dugu Espainiar Estatu-

ren eta honen laguntzan ari direnen estrategia errepresiboa bertan behera utzi behar dutela, eta bakerako eta askatasunerako alternatiba hori betetzeko jartzen dituzten traba eta indar antidemokratikoak altxa behar dituztela. Legitimitate eta indar berriuz bultzatuko ditugu ezker abertzalearen borroka-arlo guztiak, lehentasuna emanez euskal preso politikoei sakabanaketaren aurka eta Euskal Herrian batzearen alde daramatenari, herri osora zabalduz borroka hori; arreta bereziz lagunduko dugu gazteriaren oldarra eta daraman borroka gero eta konprometitu eta koherentagoa, gazte borrokalarien aurka burutzen dituzten eraso polizial, intelektual eta gainontzekoei aurre eginez. Oro har, esan dezakegu Alternatiba Demokratikoaren garapena, egunerokotasunean eta arlo eta borroka-modu orotan, hori izango dela HBren egitekoa martxoaren 4tik aurrera.


Jose Maria Gorordok hala erantzun die zirko antzeko kanpaina egiten duela diotenei: *«Alderdiek nondik datorren oso ondo ez dakigun diru asko gastatzen dute»*. **Iñigo Gurrutxaga** kazetariak «Diario Vasco» egunkariaren izenburuan ipini du: *«Majorrek bake prozesuan IRA engainatu zuela uste zuen, joan den asteko atentatuak bere estrategia bankaz gora ipini zuen arte»*.

Jose Antonio Urbiolaren ustez, *«ETA eta Bellochen artean, izugarri dotore egiten ari dira HBren kanpaina»*. **Alvarez Cascosek** esan duenez, *«terrorismoaren kontrako borroka ez da katekesi lana, erantzun gogorra baino»*. ETAK armak utzi artean, Rodriguez Ibarrek EAeko autonomia prozesuan agian aurrera-pausoak eten beharko liritekeela esan ostean, honela erantzun zion **Rosa Diezek**: *«Terroristen amarruan jausi da, hauei jokoa egin ez»*. **Gorka Agirreraren** arabera, *«PSOE, baketzearen gaian, EAfren jarretara burbilduko da»*.

Joxe Juan Gonzalez Txabarrik adierazi duenez, *«martxoaren 3an disgustoa emango diogu lehenbakiari, Gipuzkoako gure*

emaitzekin Eusko Jaurlaritzaren estadistikak gezurtatuko baitugu, non HB puntu bategatik gailenduko zaigula azaltzen den». **Jose Maria Aznarrek** honela hitz egin du Iruñean: *«Nafarroak bere nortasunari eutsiko diola eta bere historiarekiko inork ez duela etetea lortuko ziurta dezaket»*. **Mariano Ferrer** kazetariak honela idatzi du «El Mundo»-n: *«ETArekin in-*


darrak neurtzeko, ETak berak legitimizazioa bilatu nahi duen eremua baino eszenatoki hoberik ez dago: herriaren borondatea. Kotoiaren frogia egin dieziogun demokraziari; ez zaio ezer txarririk gertatuko». **Xabier Arzalluz** ETArekin kontaktatzearen alde agertu da, eta *«Benegas ez da kontra agertuko, mila bider saiatu baita horretan»* gaineratu.



Jose Luis Elorza, PSE-EEko Gipuzkoako zerrendan hirugarrena Kongresurako

«ETA eta Estatuaren arteko elkarrizketak ez luke zerikusirik euskaldunokin»

Aspalditik Beasainen bizi den arren, sortzez idiazabaldarra. Bere garaian LABen jardun zuen. EIAN egondakoa, gero EEn, azkenik PSE-EEren «epe luzerako proiektuaren aldeko apostua» egiteko.



«ETAk ez ditu planteamenduak egiten, atentatuak baino». (Argazkia: Garikoitz Garaialde).

Sozialistak hauteskundeotara espektatiba txarrekin iritsiko zaretela dirudi. Espainian eta baita hemen ere jaitsiera handia iragarri zaizue.

Euskadi maila eta Estatu maila bereizi behar ditugu. Inkesten arabera PPrekiko lau puntutik hamaika arte-rako galera dugu uneotan. PPK irabazteko aukera gehiago dituen arren, ez ditut pronostiko guztiak albortzen. Gainera garrantzitsua izango da oso irabazleak

zenbateko diferentziaz irabazten duen. Hau elementu klabea izango da gerora, Madrilgo Gobernuaren osaketa baldintzatuko baitu.

Euskadin egoera ezberdina izan daiteke. Herrialde bakoitzean emaitzak erabat ezberdinak izan ohi dira. Gipuzkoan emaitza onak espero ditut, Gipuzkoan irabazteko aukera handiak

baititugu. Araban, berriz, UA aurkezten ez denez, boto portzentaia garrantzitsu baten mugimendua egongo da. Bizkaian Estatu-tendentzia bera ematea oso posible da, PPK igoera nabarmena ezagutu baitu bertan.

Militante sozialista zen Fernando Mujikaren eta zuen oso burbilekoa zen Tomas y Valienteren bil-

ketek botoetan eraginik izango dutela uste duzu?

Bi hilketok alderdi sozialistari mesede egingo dioten ez dakit, baina zalantzarik gabe, gorde ditzatela horrelako mesedeak. Honelako gertaerek sentimendu alde-tik eragin handia izaten dute, baina ez dakit zenbaterainoko eragina izan dezaketenez bozkatzerakoan. Ho-

rrelako gertaera batek, programetan eta hauteskundeetan esaten diren beste milaka gauza garrantzia gabeko gisa uzten ditu.

Zein klabetan interpretatzen dituzu ETArek azken denborako ekintzak, eta azken biak zehazki?


Horrelakoak gertatu eta HBkoren batekin hitz egiten dudanean beti gauza bera gertatzen zait: «Estatuaren errepresioaren ondorioa da; gatazkak irauten duen artean horrelako ondorioak izango dira» eta antzerakoak esaten dizkirate. Joko horretan jokatzeko oso zaila da, eztabaida politikoa aurrera eramaterako denok arau berdinekin jokatu behar baitugu.

Euskal herritar gehienok sekulako gogoia dugu amesgaizto honekin amaitzeko. Arazoa da nola amaituko den, ezen estrategia ugari erabili baitira: kontaktoak edo elkarrizketak izan ala ez, halako Santo Domingora bidali ala ez... Bide horiek ez garamatzate inora. Gainera, politikoki zerbait hitz egin behar bada, ETak ez dauka inongo aukerarik gauzak planteatzeko, ez baitu inor ordezkatzen.

Eta non geratzen da negoziazio prozesu batean ETak berarentzat aldarrikatzen duen protagonismoa?

ETak ez ditu planteamen-
duak egiten, atentatuak bai-
no, eta atentatuak egin os-
tean baldintzak jartzen ditu:
«Ez badira baldintzok bete-
tzen, sufrimenduak jarraitu
gingo du» esaten du. Ho-

«Atentatu batek programetan eta hauteskundeetan esaten diren beste gauza asko garrantzia gabeko gisa uzten ditu»



«GAL etikoki deitoragarria izan da, politikoki desastre hutsa eta polizialki erru galanta.» (Argazkia: Garikoitz Garaialde).

rren aurrean komandoak atxilotu eta pertsona horiei legea aplikatzeko ahaleginak egin baino ezin dezakegu egin. Hortik aurrera, atentatuei amaiera emanaz gero, ETarekin hitz egin daiteke, baina ETak dituen arazoak konpontzeko baino ez: presoak... Baina hau guztia fase hori amaitutakoan. Aurretik ETarekin negoziazio politiko batera joan? Hor ez dut ikusten irtenbiderik, zeren eta, nor ordezkatzen du ETak? ETA ez da aurkezten hauteskundeetara; bere babesa HBri

ematen dio, eta HBk emaitza batzuk lortzen ditu, herri honen zati bat ordezkatuz.

Politikoki hitz egiteko, joko politiko bat dago. HBrekin eztabaidatu dezakegu politikoki, eta nahi diren gai guztiak planteatu. Baina azkenean joko demokratikoak, herri honen gehien-
goak erabaki behar du; eta herri honen ordezkaritza Parlamentuan dago.

«Komandoak atxilotu eta legea aplikatu» diozuean, polizi-bidea planteatzen duzu?

Poliziak bere lana bete behar du. Atentatuen egileak atxilotzen saiatu behar du, epailearen aurrera eraman eta Justiziak erabaki dezala. Poliziak ez du aukerarik politikoki ezer konpontzeko.

HAMARREKOA

JUAN MARI BANDRES

«GAL aferarekin Kongresuan ahots ozenetakoa berea izan zen»

JESUS EGIGUREN

«Euskal politikagintzan egun dagoen buru argienetakoa eta azterketa hotzak egiteko gaitasun handienetakoa du»

ROMAN SUDUPE

«Asko estimatzen dut»

JOXE MARI OLARRA

«Penagariak dira maiz esaten dituen astakeriak»

JUAN MARI JUARISTI

«Asko maite dut; jeltkide gogorrenetakoa da»

JOXE MARI AGIRRE

«Estimatzen ditudan pertsona buruz ezin dut gaizki hitz egin, eta 'Txato' estimatzen dudanetakoa da»

JOSEBA ALVAREZ

«Politikoki beste muturrekoa den arren, HBko laguna da»

KEPA AULESTIA


«Gerora ezagutu ez zaion funtzio garrantzitsua bete zuten bere garaian herri honetan»

JAIME MAYOR OREJA

«Jaime Mayorrek meritu handia du, zerikusi handia izan baitu Euskadin PPK ezagutu duen igoeran»

ENRIQUE MUJICA

«Sozialismo historikoaren irudirik nabarmenena ordezkatzen du; sozialismo modernoak asko zor dio»



«PPk irabazteko aukera gehiago dituen arren, ez ditut pronostiko guztiak alboratzen». (A.: G. G.).

Arazo politikoak politiko-ki konpondu behar dira. Legebiltzarra eta alderdiak horretarako daude: hitz egiteko, akordioetara iristeko... Beste biderik ez dago. ETAK Estatuarekin hitz egin nahi duela? Hitz egin dezala, Estatuak nahi badu, baina horrek ez du zerikusirik euskaldunokin, ez baitute Euskadi ordezkatzen. Euskadi alderdiok ordezkatzen dugu, bakoitzak bere ordezkaritzarekin Parlamentuan.

Egun batzuetako ikuspegiarekin, zer esan nahi du Fernando Mujikaren bilketak?

Batetik, giza-elementu komuna du atentatuan hildako beste edozeinekin. Bestetik, Fernando Mujikak historikoki funtzio garrantzitsuak bete ditu sozialismoan. Alde honetatik, berak ordezkatzen zuen guztiaren kontra joan dira zuzenean.

Nolako giroa dago azken egunotan Gipuzkoako sozialisten artean?

Alderdiari min handia egin dio, baina horren aurrean egin dezakegun gauza bakarra da gure jarrerari eta balore edo bide demokratikoei areago eustea. Guztiok bat egin dugu benetan garrantzitsua dena defenditu eta aldarrikatzeko.

ETAK hauteskundeotan eskua sartuko zuela behin eta berriro esan zen, baina balako eragina izatea espero al zenuen?

Hori beraiek prestatutako estrategia da, ETaren atentatu zuzenen bitartez zein HB bultzatzen ari den strategiaren bidez: gatazka kalera ateraz, tentsioa areagotuz... Egunotakoa estrategia horren barruan emandako beste urrats bat da. Nork daki hurrengo asteetan zer gertatuko den eta ETaren

hurrengo helburuak zein izango diren?

Oso komentatuak izan dira Tomas y Valienteren azken artikulua eta saia-kerak. Bere esaldietako bat hauxe: «Ez dakigu nola konpondu ETaren arazoa, eta geuk konpondu beharra dugu».

Indarkeriaren arazo garrantzitsuena euskaldunon artekoa da. ETaren atentatuak bizitzeaz gain, gero horrek herriz herri eragina dauka HBren ordezkaritzarekin. Eguneroko bizitza baldintzatzen du horrek.

Orain arte egin diren gauzetatik at, beste bideren batetik saiatu beharko litzateke?

Hemen urrats asko eman dira: bake mugimenduak, Elkarriren saioak, Ajuria

«Politikoki zerbait hitz egin behar bada, ETAK ez dauka inongo aukerarik gauzak planteatzeko, ez baitu inor ordezkatzen»

Eneko, Madrilgo eta Iruñeko Mahaiak, hainbat foro eta elkarrizketa politiko... Bestelako saiorik egin? Ez du askorako balioko aurretik ez badago jarrera edo borondate argia urratsak emateko. Borondate horrek ENAMer munduan agertu behar du. **ETAK bere ekintzak areagotuz gero, horrek erantzun inkontrolatuak eragin ditzakeela esan du orain gutxi Felipe Gonzalezek. Orain hamar urteko adierazpenak gogorarazi dizkie askori hitz horiek...**

Felipe Gonzalezek horrelako zerbait dioenean, denek GAL aipatzen dute. Gauza bat argitu behar da: ETAK atentatua egiten duenean, lehenengo sentsazioa agresibitatearena da. Gonzalezek, nik uste, zera esan nahi zuen: jende askok hala pentsatzen duela pertsonalki. Baina horrek ez du esan nahi hori astakeriak egiteko bermea denik. PSOEk hamaika aldiz adierazi du egin beharrekoa legea errespetatuz egin behar dela.

GAL aipatu duzu. Sekula argituko da erabat?

Azkeneraino iritsi eta GALen arduradunek legearen aurrean beste guztiak bezala ordaintzea nahiko nuke. Espetxeratu behar dena, espetxeratu. GAL etikoki deitoragarria izan da, politikoki desastre hutsa eta polizialki erru galanta.

GAL aferan bi gauza dira azpimarratzekoak: gertatutakoaren errealitatea bata, eta azken urteotako instrumentalizazio politikoa bestea. Azken hau Gobernuaren eta Felipe Gonzalezen irudiak zartzeko erabili dute. Politikoki, PSOEn Gobernuak erantzukizun argia du kontu honetan: ez

zen gai izan GAL ekiditeko. Beste erantzukizunak juridikoak eta penalak dira. Hor harrapatutakoak egokitzen zaion zigorra bete dezala.

Emaizkiozu biru arrazoi gure irakurleari PSE-EEri botoa emateko.

Lehena: sozialismo demokratikoan sinesten duenarentzat garrantzitsua dela sozialismoak Euskadin indarrak areagotzea. Bigarren arrazoa: alderdi sozialistak sinesten du herri honen etorkizuna Europaren barruan dagoela, eta horretarako Europaren proiektua defenditu egin behar da. Eta urteotan PSOEn gauza bat nabarmendu bada, izan da apustu indartsua egin duela Europaren eraikuntzan. Eta hirugarrenik, desmitifikazioa eman behar dela hainbat sinbolorekiko: euskara, euskaldunak, ikurrina... Euskaltzaileen munduak ez du soilik ikurrina, dantzariak, bertsolariak, aizkolariak eta abar izan behar; Bruce Springsteen entzun eta bertsolariekin aspertu egiten dela esaten duena ere euskaltzale amorratua izan daiteke. Euskararen mundua ireki egin behar da.

Hamalau urteko agintearen ondoren, ez al da aldaketarako unea iritsi Espainiara?

T A N T O A

Ezin ipurdia geldi eduki

Orain 15 urte ezagutu nuen Jose Luis. EEko militanteak ginen biok. Biok zinegotzi hautatu gintuzten. Baina zinegotzi hautatu eta bizpahiru hilabetera, holandar batzuekin zituen harremanak eta programa bat zela medio, Nikaraguara abiatu zen. Bere ezauzgarri nabarmenaren ondorio izan zen hori, gerora askotan errepikatu duen bezala.

Ipurdia geldirik eduki ezin duen horietakoa da, oso dinamikoa. Ezin geldirik egon. Urteekin, baina, asentatzen ari da. Hala ere, beti -gaztetasun-hori sumatu izan diot: dinamikoa, esperientzia berriak ezagutzea maite duena...


Bost urte inguru egin zituen Nikaraguan lanean. Urtean behin etortzen zen, eta bisita hori elkartzeko aprobetxatzen genuen: Nikaraguako egoeraz mintzatu, Euskal Herriaz... Hemen Coprefi koo-

peratiban lanean jarduna zen, eta zuen esperientziari esker, holandarrekin batera kooperatibako organizazio bat osatzera joan zen.

Nikaraguatik itzuli bezain pronto, Bartzelonarako bidea hartu zuen. Oraingoan ikasketak aitzaki. Lehendik ere egona zen bertan, kooperatibako arduradun bezala. Hiruzpalau urtetan antropologiako ikasketak amaitu, eta berriro herrira.

Aseguru-etxe kataluniar batean lanean hasi zen gero. Urtebete inguru aritu zen horretan. Hor bukatu eta Azpeitiko altzairu enpresa batean, Danona kooperatiban, sartu zen gerente gisa. Hor ere ez zuen denbora gehiegi egin, urte t'erdi edo. Ezin leku berean denbora larregi egon.

LABen lehenengo urratetan present izan zen. Jardun politikoari dagokionez, aldiz,



Juan Mari Tolosa
EEko Beasaingo
zinegotzi ohia

EE zatitu zenean, Jose Luisek PSEren aldeko apostua egin zuen. Ez zen hori sorpresa handiegia izan niretzat, bai aldiz hartu zuen indarrekin hartu izana. Bere kemenaren eta proiektu berrietan burubelari sartzeko duen joeraren ondorio hori ere.

Jose Luis erabat tolerantia da, proiektu guztiak ulertzeko sekulako ahaleginak egiten zituena, dituena eta egingo dituen. Horren zalantzarik ez izan.

EAJk urte asko daramatza hemen agintean, baina inori ez zaio burutik pasa ez ote den iritsi ordua Euskal Herriaren ere aldaketa emateko. Estatuan planteatu egin da, bai, baina planteamendu interesatua da. Ez gaude PPri boterea emateko prest.

Martxoaren 4an ez al da krisian sartuko Eusko Jaurlaritzako koalizioa?

Ez dago arrazoirik hori gertatzeko. Eusko Jaurlaritza hauteskundeetako emaitzeekin osatu zen, eta emaitza horiek ezin dira aldatu. PSE-EEren aldetik ez da ho-

relako ekimenik izanen, eta etortzekotan, EAJtik etorriko litzateke. Baina epe motzean ez dut hori posible ikusten, Ardanzak berak oreka mantentzea duela helburu azaldu izan baitu.

MIKEL JAUREGI

BILDUMA BERRIA
bonardi '96
MULTIOPTICASEN ESKLUSIVA

2.850
PTA

Hona hemen Multipticasen Bonardi bilduma eksklusiboa adin guztiarentzat, gustu guztiarentzat eta aurrekontu guztiarentzat egokitzen diren ereduak. Multipticasen bermearekin 450 saltokitan. Eta prezio ezinobean. Gastatu gabe gustagarri izateko.

Askok Gustatzeko. Gutxi Gustatzeko.

ZINKUNEGI
MULTIOPTICAS
ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba

Hernani, 4 - DONOSTI

Kanpaina abiatuta, programen 'salmentari' ekin diote alderdiek

Hauteslerik harrapatzen ez alderdien programen amuak

Martxoak 3an egingo diren hauteskunde orokorretan begiak jarrita, otsailaren 16a geroztik hauteskunde kanpaina ditugu alderdi politikoak. Baina, politikariren hitzetan ibili ohi diren programek ba al dute eraginik herritarren boto aukeraketan?

HITLERREK esan zuen mila pertsonaren aurrean eginiko mitin batean: «Zuek enpresariok lasai, langileei ez baitiegu eskurik sartzen utziko enpresaren zuzendaritzan». Jende guztia beren eserlekuetatik zutitu eta Fuhrer-ak esandakoa txalo-

tu zuen. Handik minutu bazueta, berriz, honako hau esan zuen: «Zuek langileok lasai, enpresariak baztertu eta enpresen zuzendaritzan parte hartuko baituzue». Eta berriro ere entzuleek Adolf goratu, eta denek gustora irten zuten mitin hartatik

Wilhem Reich idazleak azalduko pasarte honen edukia aski ezaguna egiten zaigu kontinente zaharreko beste alde batean ere. Martxoaren 3an izango diren hauteskunde orokorrak gainean ditugula, estatuko alderdi guztiak boterera iris-

teko lasterketan murgildurik daude. Mitinak, eztabaida politikoak, elkarren aurkako irainak... baina zer gertatzen da alderdi bakoitzaren hauteskunde programekin? Alemania zahar hartan gertatutakoaren errepikapena izanen ote da



Mitinetara jende ugari joan arren, gutxi sinesten dute alderdien programetan. (A.: A. Elosgi).

■ Hauteskunde programak ez dira ideologiaren erakusleiho, alderdien barneko elementuak agertzeko modu bat baizik


hemen ageri zaigun panorama?

Hauteskundeak joan hauteskundeak etorri, alderdi bakoitzak programa berezia aurkeztu eta eraman ohi du aurrera. Programa honen helburuak aski eza-gunak zaizkigu: jendeareneuren asmoak jakitera eman eta asmo horiek egokienak direla sinestaraziz ahalik eta boto kopuru handiena lortu. Baina jendearen artean erroturik dagoen ideia bestelakoa da. «Politikariek gauza asko agindu baina ondoren ez dute ezer betetzen».

Erakargarritasuna nagusi

XABIER Oleaga «Euskaldunon Egunkaria»ko kazetariaren arabera, «hauteskunde kanpainetan programak ez dute eraginik, bigarren mailan pausatzen dira. Gebiago balio dute mitinak eman behar dituztenek zertaz hitz egin behar duten gidoi bat aurrean edukitzeko. Nire ustez alderdiak izan dira programen edukiei balioa kendu dien lehenak, behin boterera iristean ez dituztelako euren programak errespetatu eta aurrera eramaten».

Hauteskunde programak duten sinesgarritasun urriaren ondorioz, alderdiek horren arabera antolatzen dituzte. Sistema honetan, go-



■ Xabier Oleaga kazetariaren ustez, alderdien programak propaganda hutsa izaten dira. (A.: A. Bayo).

bernuan dagoenak herriaren gogoko ez diren neurriak hartu behar ditu eta Carmen Gurrutxaga «El Mundo del País Vasco»ko kazetariak dioen bezala, «neurri horiek programetan ez dira egoten. Alderantziz,

programetan gizarteari erakargarri egiten zaizkion faktoreak bakarrik jasotzen dira, propaganda hutsa». Azken batean, alderdien benetako programa eguneroko politika praktikoan aurkitu behar dela azpima-

rratzen dute politika gaietan adituak direnek.

Alderdi politikoak hauteskunde programak etorkizunerako ongizatearen sustengu bezala agertzen saiatzen badira ere, jendeak ez ditu irakurtzen. «Egin»eko



EAJk otsailaren 14an aurkeztu zuen martxoak 3an egingo diren hauteskundeetan erabiliko duen programa. Hala ere, hauteslea apenas gogoratzen da programa horietaz botoa aukeratzeko orduan. (A.: Joxe Lacalle).

Martin Garitano kazetariaren ustez, «alderdien programak irakurtzen dituen jendea nekez atzeman dezakegu, azken urteetako praktikak erakutsi dielako gauza gutxi ikas daitekeela bertatik. Jendeak berri gehiago jasotzen du telebistako eztabaidetan edo mainguruetan, programa bera irakurrita baino». Boto-emaileen oso portzentaia txikia da programa irakurri eta gero bere botoa erabakitzen duena. Hala ere, pro-

grama hauetan sinesten duen jendea badago, eta hori ezin uka daiteke. «Gaur egungo gizartean politikariei sinesten dietenak, jakintza edo prestakuntza murrizta duten pertsonak izaten dira», Carmen Gurruixagaren esanetan.

Oro har jendeak alderdi

politikoen lau mezu inozo jasotzen ditu Felix Hereña Onda Ceroko kazetariak adierazitakoaren arabera. «Eskuindarrak pentsioak kentzera datoz, PP edo PSOeri botoa ematea korruptzioaren aldeko botoa ematea da eta PPrekin mundua konponduko da

izango lirateke hauteskunde hauetan jendeak hartuko lituzkeen mezu nagusiak.

Beraz, irakurleek eta jende askok egiten duen galdera izango da, zerbaitetarako balio al dute hauteskunde programak boto-emailea erakartzeko? Momentu hauetan ez omen du ezertarako balio, baina Felix Hereñak esandakoaren arabera balioko luke baldin eta «jendeak irakurriko balu, konparaketak egingo balitu, eta programa horiek praktikan



«**Hauteskunde programek frustrazioa besterik ez digute ekarri»**

FELIX HEREÑA


Eusko Alkartasuna, Euskal Herriaren Ahotsa Madrilén.

Erabaki tinkoa hartu dugu Estatuaren egituren inguruko indarkeriazko sare ilunak argitu

eta ustelkeriaren aurkako borrokan jarraitzeko, Euskal Herriaren normalizazio politikoa eta bakea lortzeko ihardueran oztopo larria baitira.




Igone Martínez de Luna



Jasone Irarragorri



Begoña Lasagabaster



Pello Yaben

jartzeko dagoen aukera kontuan hartuz botoa emango balu. Baina errealitatean, orain arte izan diren hauteskunde guztietan programa ugari saldu zaizkigu eta honek frustrazioa besterik ez digu ekarri, programekiko sinesgarritasuna desagertaraziz. Kazetari honen ustez, alde batetik jendeari interesatzen zaizkion gaietan xehetasun handiagoa beharrezkoa da, eta beste aldetik herritarri programan jartzen duena esplikatu behar zaio. «Ez da nahikoa garraioaren sektorerako kamioi baten gainean argazkia ateratzea. Sektore horri programaren berri zehatza eman behar zaio, eta alderdiko teknikariek ematen badute, askoz hobe».

Eboluzioa programetan

AZKEN 20 urteetan egin diren hauteskundeek hainbat eta hainbat programa ezberdin utzi dituzte, baina aditu gehienek ustez azken urteetakoek ez dute eboluzio handirik ekarri. Carmen Gurrutxagak dioenez, «aurtengo hauteskunde orokorretarako programetan ez da aldaketarik nabarmen-tzen». Martin Garitano kazetariak, aldiz, Alderdi Po-



Alderdien programetan ez da eboluziorik nabarmentzen, Carmen Gurrutxagaren arabera. (A.: A. Elozegi).

pularrak bere burua bigundu egin duela uste du: «Euren burua agintean ikusten dute eta alde horretatik bigunago edo goxoago agertu nahi izan dute. Beste alderdiek, berriz, lerro berean jarraitzen dute. Edukien gaineko jarrera asko

aldatu ez bada ere, programetan agertzen diren edukiak ezberdinak dira orain dela hamar urtekoekin konparatuz. Xabier Oleagak besterik dio: «Azken urteetan eboluzioa jasan duena gizartea izan da. 1977an lehenengo hauteskundeak

egin zirenetik gaiak eten-gabe aldatzen joan dira. Gizartearen kezkek jasan-dako eraldaketan ondorioz programetako gaiak aldatu egin dira, alderdien ideologia gutxiasko berdina bada ere».

Marketina eta tradizioa

BERAZ, hauteskunde programek ez dute eragin handiegirik izaten herritarren-gan alderdi bati edo besteari botoa ematerakoan; beste hainbat faktore garrantzitsuagoak izan ohi dira. Gaur egun hauteskundeetako publizitate-marketingak zerkusi nabarmena du boto aukeraketan. Bakoitzak bere hautapen politikoa egiten duenean gehiago dago lotuta marketingaren eragine-tara konprometzu publikoa edo honen jarraipena egiteko hartzen duen erantzukizunera baino. Bestalde, tradizioaren pisua ere nabaria da, nazionalismotik at errepublikar tradizioa dutenak PSOeri edo IUri emango diote botoa eta eskuindarrek Alderdi Popularrera jotzen dute. Azkenik, hautagaiek agertzen duten jarrera eta prentsaren eragina ere handia izaten da.

JOSU ARANBERRI

ENEKO S.A.



Garagardo, ardo, kontserba eta likore banatzailea

**KALITATEZKO
PRODUKTU ETA ZERBITZUA!**

176 postakutxa - 20.550 - ARETXABAILETA
tel.: (943) - 79 44 59 - 79 44 60

GAZTANAGA

SAGARDOTECIA



BURUNTZA
AUZOA
Tel: 59 19 68
ANDOAIN

Iragan irailean izan zuten Frantzian lehen Amazig Kongresua

Berberere herriari heldu zaio berpizkunde garaia

Berberere herria Ipar Afrikan dago sakabanatua, Egiptotik Sahararaino, Tunisiatik Nigerrera. «Imazigen» deitzen diete beren buruei, gizaki askeak alegia, eta tamazigt-a dute hizkuntza.



■ Mendi eta basamortuetan ezezik, Magrebeko hirietan ere berbere asko bizi dira.

MUGIMENDU berberera 70eko hamarkadan hasi zen bere burua ezagutarazten Magreben. Hasieran ikasleak ziren, gehienbat, beren nortasuna aldarrikatzeari ekin ziotenak, eta oposizioako alderdietan aritzen ziren, klandestinitatean sartuta, ezker muturreko erakundeekin batera.

Aljeriako Kabiliaren hiri-

buruan, Tizi Ouzouko unibertsitatean hasi zen Berbere Udaberria edo BERPIZKUNDEA. Antzinako poesia berbereari buruzko ekitaldi bat debekatu zuen agintaritzak 1980ko martxoaren 10ean. Mouloud Mammeri idazle aljeriarra zen hitzaldia eman


behar zuena, eta debekuak ikasleen erantzuna eragin zuen. Biharamunean, ehundaka aritu ziren manifestari «berberera geure kultura da», «errepresio kulturalik ez» eta antzeko kontsignak aldarrikatuz. Hiru egunen buruan manifestal-

diak Kabilia osora, Aljeriara eta gainerako herrialde berbereetara hedatu ziren. Errepresioari ekin zion gobernuak, baina jaioa zen Berbere Udaberria hiru ardatz hauen inguruan: demokrazia, herri nortasuna eta kulturaren aldarrikapena.

Latinean du berezko ja-torria «berbere» hitzak: «barbarus», hau da, Erromako inperioaren mugetatik at bizi zirenei ematen zitzairen deitura. Eta bidenabar, latina hitz egiten ez zutenei. Berbereek, ordea, «imazigen» deitzen diete beren buruei, «gizaki askeak», eta hizkuntzari tamazigt. Imazigendarrak oso hedaturik daude, eta egon izan dira historian zehar, Ipar Afrikan: Siwa oasis (Egipto) Kanariar irletaraino; Mediterraneo itsasotik Nigerrera.

Tamazigt hizkuntza

MENDERIK mende izandako inbasioek ezin izan zuten erabat ezabatu berbere nortasuna. Tamazigt hizkuntzak eta kulturak, esparru mugatueta bada ere, bizirik diraute oraindik. Mila dialekto inguru baditu berbere hizkuntzak, hizkuntz mapa osatzeko dagoen arren. Eta hizkuntzalari askoren iritziz tamazigt hizkuntza bakarra da, nahiz eta abar asko izan: *kabli*-a Aljer ingurutan; *chaoui*-a Konstantina aldean; *tuareg*-a Aljeriako hegoaldean; *mozabi*-a Gardaian... Marokon herritarren % 40 inguruk hitz egiten du tamazigt hizkuntza: *tarifit*-a Rifan, iparraldean; tamazig-



Antoine Saint-Exuperyren «Printze txikia»-ren atal bat tamazigteraz idatzia, berbereen hizkuntzan alegia.

ta Atlas Erdikaldean eta *tachelhit*-a Atlas Garaian. Tunisian, hegoaldean erabiltzen da berbere hizkuntza. Baina sei herriskatik gora ez dira, guztira, Djerba lurraldean, Matmataren mendebaldean eta Gafsaren ekialdean. Tuaregek, berriz,

tifinag-a erabiltzen dute, gaur egun idazten den dialekto bakarra. Bost estatutan banaturik bizi dira tuaregak: Malin, Nigerren, Burkina Fason, Aljerian eta Libian. Ez pentsa horregatik mendi eta basamortuetan sakabanatuta bizi direnik imazigen guz-

Aljerian, imazigeni buruzko artikulu bat edukitzea, edota tfinag- ez idatzitako izkribu bat, delitutzat jotzen dira

tiak. Emigrazioak hiri handietara (Aljerrera, Agadirra) eta erbestera eraman zituen asko eta asko.

Imazigen edo berbereen nortasunak hiru ezaugarri nagusi ditu: tamazigt hizkuntza, historian zehar landutako tradizioak eta islama. Baina panarabismoak, arabiar-islamismo totalitarioak ez dio lekurik ematen berbere nortasunari. Ideologia honek arabiarra aldarrikatzen du hizkuntza bakartzat eta arabiar-islamismoa pentsamendu nagusitzat. Berbere nortasuna aldarrikatzen dutenak, beraz, «separatista-txovinistak dira, islamiar-arabiar nortasuna suntsitu nabi duten inperialista europarren adiskideak».

Independentziaz geroztik autoritarismoa, burokrazia eta zentralismoa erabili dituzte Magrebeko gobernuak berbereen nortasuna oin-

ORBELAN

Ama Kandida etorbidea, 13
ANDOAIN 20140
 Tel: 59 11 51
 59 15 90
 Faxes: 59 16 99

Kalitatezko sagardo kaja egilea

MB Molduras BAEK, S.A.

Frisoak, Oholtzak
 Regruesoak, Janbak
 Errodapiak, eta abar

Landeta auzoa z/g - Pol. 37
 117 Posta Kutxa
 Tel. 81 22 75
 Faxes: 81 64 24
 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

peratzeko. Arabiar klasikoar ezarri zuten administrazioan, kulturean eta hezkuntzan. Tamazigt hizkuntzaren katedrak kendu egin zituzten Rabat eta Aljerreko unibertsitateetatik. Aljerian, imazigeni buruzko artikulua bat edukitzea, edota tifinagaz idatzitako izkribu bat, delituztat jotzen dira. Libian, 1969az geroztik, imazigen nomadak sedentariatu egin nahi izan dituzte. Marokon, beste hainbeste.

Lehen kongresua

TUAREG herriaren bizimodu ere ez da gozoa. Bost estatutan sakabanatuak, borroka armatuari ekin zioten Nigerren eta Malin genozidioari aurre egiteko. Bi arrisku nagusi ditu tuareg nortasunak: desegituraketa soziala (klimatologia ere ez dute batere lagungarri) eta bost estatuen politika. Mugak zorrozki kontrolatzen dituzte bost gobernuotako poliziek, nomadismoa akabarazteko asmotan. Gazte tuareg askok emigratu egin dute ordea, lan bila, bai Aljeria edo Libiara, Nigeriara... baita Frantziara ere. Hiritar-tzeak eragin die askori beren nortasunaz jabetzea, herri-kontzientzia berenganatzea.

Marokon, mugimendu berberiek kutsu kulturala du nagusiki eta badira hainbat elkarte hiri handietan eta berbere herrialdeetan. Unibertsitateetan ere nabari da, maila tikiagoan, mugimenduen itzalik. Bada Alderdi Berberetzalerik ere (Herri Mugimendua izenekoa), 60ko hamarkadan sortua.

Berberiek «imazigen» deitzen diete beren buruei, «gizaki askeak», eta hizkuntzari Tamazigt



Tamazigt hizkuntzaren ofizialtasuna eskatzen du, eta irakaskuntzan erabili ahal izatea. Ezker koalizio berrian, bestalde, berbereen eskakizunak jasotzeko jorarik sumatzen da.

Aljerian, berriz, politika alorrean aldarrikatzen dute berberiek beren nortasuna. «Udaberria»-ren ondoren alderdi bat ere sortu zuten «Kultura eta Demokraziaren aldeko Biltzarra». Baina berbereen aldeko ekimen nagusienak FFSk-Indar Sozialisten Fronteak bultzatu izan ditu, eta hauxe da gainera eragin handiena duena. Magreb osoan nabaria da berpizkunde mugimendua eta iazko irailean egin zen Frantzian lehen Amazig Kongresua. Ekitaldi horrek adierazten du imazigen mugimendua sendotzen eta hedatzen ari dela Magreb osoan. Ehun ordezkartik gora bildu ziren kongre-

suan, 40 elkarte kultural berbereen ordezkari, Aljeria, Libia, Maroko, Kanariar Irlak, Europa eta Amerikatik bertaratuak. Berbereen kultura nola defendatu, zaindu

eta zabaldu, horiexek izan zituzten biltzarreko mintzagaiak. Imazigendarrek libre izaten segi nahi dute.

KEBIR SABAR



IRUN
AMAYA TEATROAN
Otsailaren 23an, ostiralarekin
Gaueko 9etan

BASAURI
SOZIAL ANTZOKIAN
Otsailaren 24an, larunbatarekin
Arratsaldeko 8 1/2etan

Jose Maria Ruiz Urtxegi, Adeggi Gipuzkoako enpresari elkartearen idazkaria

«Enpresa berri bat sortzeko urtebete ibili behar da hemen paperak egiten»

Adegiko idazkari nagusiaren iritziz, enpresa berriak sortzeko erraztasunak eskaintzea, enpresa txiki-ertainak bultzatzea eta lanbide berriak bilatzea, horiek liriteke gaur egun langa-beziari aurre egiteko bideak.



«Lehiakortasuna hobetu beharrean gara; beste konponbiderik ez du gure ekonomiak». (Arg: G.G.).

Eusko Jaurlaritzaren Industria Planak lagunduko al dio EAEko ekonomiaren suspertzeari?

Mirakulurik ezin liteke egin ekonomia alorrean, baina egokia iruditzen zait oro har plana. Nolanahi ere, apustu sendoagoa nahi genuke enpresari elkarteok, eta industria suspertzeko, bereziki, diru kopuru handiagoak.

Industria Sailaren politika Europako gainerako herrialdeetan burutzen ari denaren antzekoa da oso. Bereizgarria zera genuke, intentsitatea. Bestetik, ekonomia globalizatuan gabiltzanez, Alemania, Japonia, EEBBekin... aritu behar izaten dugu

lehian. Ez atzerriko merkatuetan soilik, etxean, hemen ere bai. Bertara etortzen baitzaizkigu beren produktuak saltzera.

Konpetentzia globalizatu egin zaigu beraz, eta aipatu ditudan potentziez gain beste batzuekin ere (Polonia,

Txekia...) lehiatu beharrean gara egun. Konpetibitate horren eraginez sortu da 'deslokalizazioaren' fenomeno, eta Alemanian, adibidez, lan-kostuek bultzatuta, zenbait enpresak beste herrialde batzuetara jo dute. **Gipuzkoan eta Hego**

Euskal Herrian ere nabari al da deslokalizazio prozesurik?

Hori baino gehiago beste hau da gertatzen ari dena: «Bezeroa non, geu ere hara». Bezeroa dagoen ingurunean beren jarduera komertziala, industriala ere zenbaitzuetan, areagotzen ari dira hainbat industria eta talde. Esan dezadan badugula oztopo berezirik horretarako: diruaren prezioa, interes tipoak alegia. Europako interes tipo garestienak ditugunez, askoz ere errazagoa zaie, esate batera, estatubatuarrei hemen enpresa bat jartzea guri hara eramatea baino.

Industria alorreko enpresak al dira nagusi oraindik ere Adegin?

Denetarik daukagu: industria, merkataritza, zerbitzuak... Egia da geroz eta gehiago zerbitzu alorra ari dela gorantz, baina ezin liteke egin, halamoduz, industriatik zerbitzuetarako

« Kezkagarriena zera iruditzen zait: gure herriak bere historia osoan izan duen belaunaldi prestatuena dagoela lanezean »

trasbaserik. Industria kementsua behar dugu gero zerbitzuak sor daitezen, beti ere aurrekoari uztartuak: informatika, aholkularitza, ingeniariaritza... Industria sendorik gabe nekez izango dugu zerbitzu sektore sendorik. Sarritan inbidiaz aipatu ohi dugu horrelako edo halako herrialdetan sekulako hazkundera izan duela zerbitzu alorrak. Baina go-goan izan behar da horietan ere industria dutela oinarria. Industria kementsurik gabe zerbitzuek ez dute edukirik. **Eustaten txosten batek dioenez, soldata bidezko errentak gutxitu egin dira EAEn azken urteotan. Hau da, langileen irabaziak murriztu egin dira.** Datu horiek egiazkoak dira, oro har, baina ez enpresak

banan-banan aztertuta. Soldatak igo ere egin dira, zenbait lantegitan doitze planak egin behar izan dituzten arren, merkatuari egokitu ahal izateko. Eta doiketa planak guztiz zehatzak balira, are handiagoa izango litzateke langabetuen kopurua. Gertatzen da ordea ezinezkoa dela doiketa erabat zehatzak egitea: eskari honetarako 50 langile behar dira, beste hartarako 65... Enpresa askotan gutxi gorabeherako doitze horren baitan daudenez, soldatak ere ezin dituzte igo nahi edo behar adina.

Burdinaren aroa, burdingintzaren nagusigoa amaitua al da euskal industrian?

Bai, zeren eta balio erantsi handiagoko produktuak

behar ditugu. Hori erraza da esaten, eta zaila egiten. Lan kostuak Euskal Herrian, gogora dezagun, ez dira merkeenetakoak, ezta gutxiagorik ere. Gorenko mailetan gabilta. Honenbestez, burdinazko gurpil bati zuloak egitea produktiboa ez dela jabetzean, beste lurralde batzuetara eramaten dira zeregin horiek. Eta ezin dira lan kostuak % 50 jaitsi, gauden testuinguruan baikaude. Beraz, zenbait produkzio bazterrerara utzi beharko ditugu, baina beste batzuei ekinez.

Lehiakortasuna al da ekonomia aurrera bultzatzeko modu bakarra?

Dударik gabe. Geu ez bagara lehiakorrak, beste batzuek hartuko digute txanda. Horrek ez du bueltarik. Ikuzgailuak frantsesek edo alemanek baino garestiagoak egiten baditugu, gureak ez dira salduko, eta eurenak bai. Adibide bat: Suitzako zenbait hegazkin konpainia Indian ari dira egiten fakturazio eta kontabilitate lanak. Batere arazorik gabe gainera. Satellite bidez bidaltzen dituzte Madrasera fakturak eta gainerakoak, eta hortxe egiten dizkiete kontuak, txartelak, gestioak. Esan beharrik ez Indiako soldatak oso tikiak direla Suitzakoan aldean.

Ekonomia sailburu bazi-na zeintzuk neurri hartuko zenituzke ondorengo alor hauetan? Haste-ko, interes tipoak.

Jaitsi. Nola eta zenbat eztabaidatu beharko litzateke, baino jaitsi dudarik gabe.


Euskal Banku Publikoa?

Bereizi egin beharko lirateke gai honetan eskaera politikoa eta ekonomikoa. Baina ekonomikoari atxikiz soilik, Euskal Banku Publi-



«Diruaren prezioa derrigor merkatu behar da». (Argazkia: Garikoitz Garaialde).

Enplegua, hauteskunde hauen izarra



«Jasanezina, eskandaluzkoa da langabezia-tasa. Gazteriak jasaten duena bereziki». (Arg: Garikoitz Garaialde).

koa sortzea positiboa izango litzatekeela uste dut.

Langabezia?

Jasanezina, eskandaluzkoa da daukagun tasa. Kezkagarriena zera iruditzen zait, hala ere: gure herriak bere historia osoan izan duen belaunaldi prestatuena da goela lanezean. Zer konponbide bururatzen zaidan? Alemanian sindikatuek eta enpresariak adostu berria dutena agian. Langabezia-tasa % 10ekoa dute Alemanian, geurearen erdia ere ez, baina kezkatuta dabilta. Eta sindikatu-enpresariak lortutako hitzarmen modukoan bi gai azpimarratzen dira: enplegua eta konpetibitatea.

Eta hiru bide jorratuko dituzte. Bata, enpresa berriak sortzeko erraztasunak

ematea. Hemen enpresa bat sortu nahi duenak urtebete pasa behar izaten du paperak egiten, leihatila batetik bestera etengabeko joan-etorrian. Burokraziak izutu egiten ditu enpresari berriak. EEBBetan, aldiz, goiz batean egin ditzakezu paper guztiak. Bigarrenik, PYME edo enpresa tiki eta ertainak bultzatzea. Horiexek dira, bai Alemanian bai Euskal Herrian, enplegu gehiena sortzen dutenak, eta horiei eskaini behar zaie arreta berezia. Eta hirugarrenik, lan mota berriak suspertzea. Adibidez, geroz eta ugariagoa den jende heldua ongi atenditzeko erakunde eta enpresak sortzea.

XABIER ARANBURU

LANGABEZIA zibilizazio industrial-kapitalisten izurria bilakatu da, Europa osoa zeharkatzen duen izurrite moderno. baina nonbaiten katastrofe mailara iritsi bada, hori estatu espainolean eta Euskal Herrian izan da. Maiz entzuten ohituak gauden zifra hotz makroekonomikoen atzean, gizon nahiz emakume emakumeen drama eta patologia anitz estaltzen dute. Baina zalantzan nago hauteskunde hauetan politiko profesional gehienak azaltzen duten interesa gizakien sufrimenduak eragina ote den, edo botoak lortzeko slogan publizitario hutsak.

Azken urteotan pasa dena ikusirik, mesfidantza erabatekoa daukat han edo hemen boterean egon diren indar politikoengan, EAJ eta PSE-PSOErengan, zeren biak, indar ekonomiko edo kapitalen esklabu, merkatu ekonomian sinisten dute eta neoliberalismoa izan dute beren gidari ideologikoa. Logika horrekin Maastricht da beren egitasmoa, nahiz aski frogatuta gelditu beren eskariak betetzeko indarrean jarri diren neurri eta legeek areagotu egin dutela langabezia eta pobrezia estatu osoan. Euskal Herrian, Madrili lotzen gaituen politika ekonomikoaren kate astunak ondorio latzagoak sortu ditu: mende hasieran eraikitako eredu ekonomiko suntsituta gelditu da eta ez da ikusten, epe ertainera, bere ordezeko egitura ekonomiko berriak jasotzeko gaitasunik dagoenik. PPK gobernua osatzea lortzen badu, urteotan jorratu den bideari jarraituko dio, eta langilegoaren kontrako erasoak areagotu egingo ditu.

EKONOMIAREN susperketak ekarriko lukeen hazkunde, nahiz handia izan eta luzaroan iraun (mirakulua eskatzea da hori) ez litzateke aski langabeziari serioски aurre egiteko. Baliteke, alderantziz, lanpostu berriak sortu beharrean langabezia gehitzea, iaz gertatu zen bezala. Inbertsioak, nahiz milioikada handiak izan, teknologia berrietara bideratzen dituzte, eta hauek ez dute giza-lana bermatzen, alderantziz baizik. Jainkoa bihurturik duten lehiakortasunak agintzen du.


BENETAN langabeziari aurre egin nahi bazaio, merkatal lojikaren kontrako mekanismoak eta proposamenak indarrean jarri beharko liriteke. Neoliberalismoak ezabatu nahi duen Ongizatearen Estatua logika horrekin eraiki zen Bigarren Mundu Gerratearen ostean. Baina orduan, orain ez bezala, kapitalismoa aldaketa iraultzaileen beldur zen.

J.R. GOIKOETXEA, 'ARDOTXI'.

Erbestean Agirre lehendakariaren idazkari izandakoa otsailaren 11n hil zen

JELTZALEAK «BULTZAGILE» GABE ANTON IRALA ZENDU ETA GERO

EAjko militante zaharrena» dela diote Agirre lehendakariaren Eusko Jaurlaritzako idazkari nagusi izandakoagatik. Informazio zerbitzuetan EEBBekin elkarlanean aritua, 'Bultzagileen' ideologoa joan da.



Anton Irala Bilbon jaio zen 1909an, eta aurtengo otsailaren 11n hil da Donibane Lohizunen.

1909-KO maiatzaren 8an jaio zen Bilbon Anton Irala. 86 urte beteta zituela hil den Euzko Alderdi Jeltzaleko partaide historiko honek gaztetandik azaldu zuen alderdiarekiko lotura; izan ere, Deustuko Unibertsitatean ikasten ari zela sartu zen euskal mugimendu abertzalean. Oso gazterik.

Gerra baino lehen, EAjko

Idazkaritza Nagusiko partaide izan zen, 1931tik 1936ra hain zuzen ere. Jose Ramon Amezola eta Esteban Aranzadirekin batera sartu zen idazkaritzan, Jose Luis Iri-sarrik gogoratu digunez. «Ni garai hartan propaganda batzordeko lehendakaria

nintzen eta hori zen genuen barremana». Irisarrik, Manu Egileorrekin batera, idazkaritzan kide izan zuen bilbotarra.

Juventud Vascako militantea gaztetandik, bai bere anaia 20ko hamarkadan, baita bera Errepublika ga-

raian famatuak izan ziren. Hala diosku, behintzat, Koldo San Sebastian historialariak. Espainiako Gerra garaian ere partehartze zuzena izan ei zuen Iralak. Lehenengo lana Frantzia armak erostea izan zen. Frankisten altxamenduaren ondoren

«**Jaurlaritza
New Yorken zegoe-
nean, erbestera-
turik geundela,
eman zen CIAre-
kiko elkarlana»**


**JOSE LUIS
IRISARRI**

Murgian atxilotu zuten, bai-
na ihes egitea lortu zuen.
Altxamenduari aurre egite-
ko armak lortzeko eginbe-
harra jarri zioten eta, Teles-
foro Monzonekin batera, di-
rui lortu, erosketa antolatuta
eta «euzko gudarosteek»
defentsarako behar zituzten
armak Bilbora ekarri zituen.

Agirrerekin Jaurlaritzan

GERRA garaian Eusko Jaur-
laritzako Lehendakariatzako
idazkari nagusi lanean jar-
dun zuen, beratu sortu be-
zain laster. Kargu honetan bi
urte zeramatzala, Estatu
Batuetara bidali zuten or-
dezkarari moduan, eta bertan
Manuel de la Sota eta Jose
Maria Urrestirekin batera
aritu zen, Eusko Jaurlaritza-
ren ordezkari bat sortze-
ko lanean.

36ko Gerra amaitu zenean
Europara itzuli zen Anton
Irala, eta Parisen Eusko
Jaurlaritzaren ordezkariatza-
ko kide izan zen, Jose An-
tonio Agirre lehendakariak
izendatuta, Jose Luis Irisa-
rri oroitzen duen legez.
Ibarnegarai eta honen talde
politikoaren presiopean,
Frantziako Gobernuak
Jaurlaritza bidaltzeko agin-
dua eman zuen, baina Iralak
muzin egin eta bertan jar-
raitu zuen. Alemaniak
Frantzia inbaditu zuen ga-
raian, hain zuzen, jeltzale
bilbotarrak pertsona eta



Donibane Lohizuneko Goxoki etxean bizi izan da Anton Irala.

gauzak ateratze-lanetan jar-
dun zuen. Erbestean, Ipar
Euskal Herrian, Pauen eta
Marseillan bizi izan zen.

Estatu Batuekin elkarlana

MEXIKORA joan zen 1942an
alemanek okupatutako
Frantziatik, eta Ameriketara

jada, berriz ere Estatu Batur-
tarantzko bidea hartu zuen,
New York-eko bidea, hain
zuzen. Bertako Basque De-
legation delakoan Agirre
lehendakariaren agindueta-
ra jarri zen Irala, baita Ma-
nuel de la Sota delegatuaren
agindupera ere, Eusko Jaur-
laritzaren ordezkari gisa.

Besteak beste, Errepublikar-
en Gobernuak aholkulari
izan zen Nazio Batuetan, Fi-
lipinetan...

II. Mundu Gerra garaia
«amerikanoekin kolabora-
tzeko epea zen, eta garai
bortan Anton Iralaren lana
oso garrantzitsua izan zen»,
aipatu du berarekin batera
Mexikon aritu zen Jose Luis
Irisarri. «Gobernu ameri-
karrarekin izan genuen el-
karlana, Agirre lehendaka-
riak bidalita». Koldo San
Sebastianen hitzetan, «in-

«**Berak eragindako 'Bultzagileak'
taldeak oso antikomunistak ziren»**

KOLDO SAN SEBASTIAN

1936tik aurrera garrantzi aparteko gizona

Frankismoaren garaian ezagutu nuen Anton Irala. Ez zen orduan EAJren aparatuaren gustuko gizona izan. Munduan guda hotza izenez ezagutzen genuen giroa bizi genuen. Irala amerikarren aldeko gizon sutsu eta eraginkorra zen.

Gehiegi ezagutzen ez dudan arrazoia bitarteko, alderdiko buruek ez zuten begi onez ikusten baina bai errespetatzen. EAJko guda ondoko lehenengo zatiketari Sabiñano izenez ezagutuak izan ginen burukide taldea lehenengo Bizkai Buru Batzarretik eta geroago alderditik jaurti gintuztenean Irala, «Bultzagileak» bere taldea, talde jarraitzailea eta ELA Askatuko kide batzuk ere kolokan zeuden.

Gizon argia eta jatorria zen eta 1936tik aurrera garrantzi aparteko gizona.



JOSU ARENAZA

Baina EAJko aparatua zailantzan zegoen Irala bikoiztasunean amerikarren morroi ez omen zen. Denen gustukoa ez izan arren, balio handiko alderdikidea izan zen. Komunismoaren etsai amorratua. Orain orduko komunisten buru izandakoen jokabidea ikusirik, harri-garria iruditzen zaigu. Denok aldatu gara zerbait, baina batzuk behintzat abertzale jarraitzen dugu.

Anekdotak amaitzeko; Santiago Carrillo komunisten buru ohia lehenengo Bilbora etorri zenean, larrialdi batek jota Basurtoko eritexera eraman zuten. Iralak deituta, ea zer zeukan jakitea eskatu zidaten. Ospitalera joan eta espedientearen hainbat argigarri lortu nituen: bihotzeko angor txiki bat izan zuela, alegia. Honek argi erakusten du Irala amerikarren gizona zela eta orduan, gu geu ere bai.

Gizon argia, eztabaidatua, baino orduko ikuspenetik abertzale jeltzalea. Nahiz eta gaur beste egoera batean eta beste ertz batetik aztertu, ezin ukatu gizon jakintsu eta eragilea izan zenik. Abertzaletasun jeltzalearentzat behintzat. Agur ba, eta ohore, lagun eta aberki-deari.

formaziorako eta propagandarako euskal zerbitzuetara lotuta zegoen, piska bat espioitza eta piska bat propaganda egin zuen 1958. urtera arte».

CIAREKIN HARREMANAK

AMERIKARREKIN izandako lotura gogoratzen dute, izan ere, bere lanaren ezaugarri garrantzitsutzat, ezagutzen zutenek. Jose Arenazaren aburuz, «orduan EAJ amerikarren aldekoa zen, eta harreman estuak izan zituzten amerikarren zerbitzuek eta EAJko informazio zerbitzuek. Guztia frankismoaren aurkako borrokan barnean».

Estatu Batuekiko informazio zerbitzuen loturak CIArako garamatza. EEBBek, Eusko Jaurlaritza erbestearen zela, Francoren aurkako borrokan Jaurlaritza babesten zuten eta, «bera New Yorken zegoenean, gu han erbesteraturik geundela, eman zen CIArekiko elkarlan hori. Estatu Batuek Francorekin bitzarmena sinatu ondoren, ordea, bertan behera gelditu zen elkarlana», adierazi digu Jose Luis Irisarrik.

■ **Bat datoz bere ezagunak: «Abertzale oso handia zen», antikomunista eta amerikarzailea izateaz gain**

Arenazak Iralaren eragin-kortasuna azpimarratzen du: «Nik uste dut intelektual bat izan zela. Oso amerikarzailea zen, batez ere guda denboran; hori argi dago. Europako gudan bera izan zen gizon borrokalaria». Zehaztu egiten du Iralaren lana: «Gizon eraginkorra zen, baina ez politika mailan agertzen zelako, azpiko borrokan eragina izan zuelako baizik».

Estatu Batuetako nazionalitateaz hainbat urtetan


informazio zerbitzuetan lanean jardun ondoren, 1949an atzera Euskal Herrira itzuli zen Anton Irala bere familiarekin. Izan ere, erbestearen Begoña Estevezekin ezkondu zen.

Agirre lehendakaria desagertu zenean, herriaren askatasuna eta pertsonen elkartasunaren garapenerako gaur egungo arazoak aztertzen jardun zuen, jada 40ko hamarkadan hasia zuen bide intelektualari jarraipen emanez —burujabetzaren inguruko kezkek azaltzen baitzuten EAJri bidalitako eskutizetan—.

Ideologo abertzalea

KOLDO San Sebastianen aburuz, doktrina eta ideologia mailan lan asko egin du Iralak. «Oso garrantzitsua zen, badaude ikerketa taldeak ideologia hau aztertzen dutenak, 'burujabetza' izenekoa, berezia; beste bide bat zen.». Dena den, «70eko hamarkada ez zen garairik hoberena horrelako teoriak bultzatzeko, heterodoxo eta ezberdina zen». Bere lan ideologikoa argitaratu ere egin zuen bilbotar jeltzaleak. 1975ean «Bat bitan banatzen da» kaleratu zuen, eta hurrengo urtean «Uno se divide en dos: el arma revolucionaria de Mao Tse Tung». «Burujabetza» edo «Revolucion-Represion» liburuak 1981ean argitaratu ziren. Irisarriren ustez, bere obrak «balio historiko oso handia zuen, eta asko hitz egiten zen honegat».

Arenazak azpiko borrokan eragiletzat definitzen duen honek «Goiz Argi» aldizkaria sortu zuen «Bultzagileak» taldearen eragile izan zen, «burujabetza» aztertzen



Bere obra, bere liburuak, 1975etik 1981era bitartean argitaratu zituen Anton Iralak. Argazkian, «Uno se divide en dos», 75ean kaleratutakoa. (Argazkia: G. Garaialde).

ziharduten taldeak hain prezeski. San Sebastianen ustez, isileko borrokan ziharduten ikerketa talde hauek oso garrantzitsuak izan ziren. «Oso antikomunistak ziren, posibilistak batzuetan, baina ez zuten arrakastarik izan». Historialariaren arabera, «ETaki-

deek ere basieran bere teoriak hartu zituzten».

Iralaren ideologia azterterakoan bat datoz bere ezagunak: «Abertzale oso handia zen» haien ustez, antikomunista eta amerikarrezaleaz gain. «Oso euskaltzalea zen, eta beti prest zegoen aldamenekoa lagun-

tzeko», San Sebastianek dioenez.

70eko hamarkadan «Bultzagileak» taldetan Iralaren kide izandakoen artean gero Euzko Alderdi Jeltzalearen banaketa garaian EAra joandako militanteak aurki daitezke, baina Irala bera ez zen EAra joan, bera zatiketaren aurka mantendu zen beti, nahiz eta bere kide gehienek alderdi sortu berriarekin bat egin. «Beti esan izan da, Leizaolarekin batera, bera zela EAjko mili-

tanterik antzinakoena» dio San Sebastianek. Arenazak Irala jeltzalea definitzen du, «abertzalea, baina bere ikuspuntutik».

1932an lehenengo Aberri Egunaren antolatzaile izandako jeltzalea 1949an Donibane Lohizunera joan zen bizitzera, «Goxoki» etxera, eta bertan bizi izan da joan den otsailaren 11n hil zen arte.

AINHOA GERRA
ARANTXA ERASUN

«Alderdiko buruek ez zuten begi onez ikusten, baina bai errespetatzen»
JOSU ARENAZA



INEKO

sake

**ITZIARKO NEKAZARI
KOOPERATIBA**


KOPERATIBAK

ONGARRIAK • HAZIAK • UREZTATZE SISTEMAK
• BARATZA ETA JARDINERAKO TRESNAK
• SAGAR LANDAREAK •

ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa) - Tel: 19 93 00 - 19 93 30 - Faxe: 19 92 70

YSABAL

SAGARDOTEGIA



Urte guztian jatetxea

USABAL AUZOA. TOLOSA. Tel: 67 43 16

Nafarroako Gobernuak hitza jan du: euskalduntze alfabetatzeak diru gutxiago jaso du

NAFAR DIRUEN HOTSAK

Nafarroako euskalduntze alfabetatzeak dirulaguntzaren % 46 soilik jaso du Gobernutik lehen hiruhilabetean. Hori dela eta, AEK-k eta IKAk informazio kanpaina bat hasi dute.

NAFARROAKO euskalduntze alfabetatzeak oztopo berri batekin topo egin du ikasturtea hasi bezain laster. Nafarroako Gobernuak hitz emandako 76.700.000 pezetako (3.068.000 libera) dirulaguntza lau hiruhilekotan banatuta jasotzen dute, eta lehenengo hiruhilekoari zegokionaren % 46 soilik eskuratu dute.

76.700.000 pezetako dirulaguntza euskalduntze alfabetatzeko erakunde pribatu guztien artean banatu beharrekoa da. Banaketa ordu eta ikasle kopuruen arabera egiten da. Horrela, gutxienez 76 pezeta dira



IKAk eta AEK-k informazio kanpaina bati ekin berri diote.

ikasleko eta orduko jaso beharrekoak. Baina gutxieneko modulo hori ere ez zaie iritsi. Gainera, orotara orduaren kostua 550 pezetakoa da. Gobernuaren 76 pezeta eta ikasleek ordaintzen duten 124 pezetarekin 220

pezeta lortzen dira, eta falta den dirua beste bide batzuetatik lortu beharra izaten dute. «Beraz, 76ko kopuru hori murrizten badigute, egoera asko larritzen zaigu», Iñaki Lasa AEK-ko kideak dioenez. AEKri 8 milioi pezeta

zegozkion hiruhileko honetan Iñaki Lasak azaldu digunez, eta gutxiago jaso dute. «Arazoa da Gobernuak aurrikuspenak gaizki egiten dituela. Ikasle eta ordu kopuruak igo egin zaizkigu eta, ondorioz, dirulaguntza ez da nabikoa».

«Arazo nagusia da Gobernuak aurrikuspenak gaizki egiten dituela»
IÑAKI LASA

IKAk ere arazo berarekin topo egin du. Hori dela eta, Gobernuarekin bilera bat egingo dute otsailaren 20an bi erakundeek. Beraien es-

karia laukoitza izan da: joan den urteko diru diferentzia ordaintzea, helduen euskalduntze alfabetatzearen inguruko eztabaida irekitzea, dekretua aldatzea eta bitarte horretan moduloa gaurko-tzea. *«Izan ere, 76 pezetako modulo horrekin 1991. urteaz geroztik gaude, eta gaurkotu beharra dago»*, Sagrario Aleman IKAKo arduradunak esan bezala. Gobernu hau UPNkoa baino aldekoagoa izango den esperantza daukate. Orain arte Gobernua ez da asko arduratu euskalduntze alfabetatzearen arazoez eta ez du inolako plangintza orokorrik egin. Baina diruaren kontuak, behintzat, konpontzeko itzaropena dute bilera hauēn ostean.

Lehen pausoa: informazioa

HALA ere, Iñaki Lasaren ustez, hori ez da arazo bakarra. *«Gobernuak aurrekontuak murriztu behar diren edo ez kontuan harturik aplikatzen du, edo ez, dekretua»*. Hori dela eta, administrazioa eta herri ekimenaren artean etorkizuneko akordio bat lortzea dute helburu, *«plangintza egin behar baita arazo guztiak konpontzeko»*.

Arazo honen aurrean, IKAK eta AEK-k informazio kanpaina bati ekin diote. *«Jendeak arazoa ez duela ezagutzen sumatu dugu, eta ekintzekin hasi aurretik informazio kanpaina bat ireki dugu»*, Iñaki Lasak dioenez. AEK-k eta IKAK prentsaurrekoa egin zuten, eta orain euskalgegi bakoitzak bere ekintzak burutzen dihardu: kartelak, pankartak, orri informatiboak... zabalduz.

AINHOA AZPIROZ



IÑAKI ARRUTI

Lasarteko Udaleko Euskara teknikaria

Zein lehentasun ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak euskararen erabilera normalizatzeko?

XABIER HUIZI

Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara arduraduna

Gipuzkoako Foru Aldundia, barrura begira, euskararen erabilera programak burutzen ari da orain bere lau departamentutan: Administrazio Orokorreko Zerbitzuak; Nekazaritza eta Ingurugiroa; Kultura eta Euskara, eta Gazteria eta Kirola.

Hauetan erabilera plangintzak aplikatzen ari gara. Nahiz eta Diputazio barrurako izan, eragin handia izan dezakete udal, elkarte ikastetxe eta abarrekin harremanetan daudelako.

Horrez gain, beste zeharkako programak batzuk ere badaude. Hala-nola langileen euskalduntzeari zuzendutakoa, euskararen sustapena, itzulpengintza, dirulaguntzak, argitalpen programa eta abar.

Udalen normalizazio-saioen koordinakuntzari dagokionez, bi eratako saiok

egingo ditugu: alde batek udalek eskualdeka funtziona dezaten dinamikak sortuko ditugu. Eta bestetik, udalek daramatzaten zenbait erabilera programaziok populazioaren gehiengoarengan eragin dezan, zuzenean diruz lagundu beharrean, zenbait zerbitzu orokor eskainiko ditugu. Adibidez komunikazio planak, kartelak, euskararen inguruko errekurtsoen inguruko direktorioak edota informazio bilgune moduko bat.

Foru Aldundiaren aurrekontuei dago kienez, oraintsu onartuak izan direnak, zuzen-zuzenean udaletako euskararen erabilera bideratuko den diru kopurua 25 milioi pezetakoa da.



U r r e a G o r o t z a



● «Gurean bai» Euskararen Aldeko Hitzarmena sinatu dute Elgoibarko 51 entitatek. Hitzarmen hau euskararen erabilera areagotzeko plangintza da.



● Donostiako Aiete auzoko lanetan arazkian ageri den enpresak euskarazko azalpenak ematerakoan euskaraz «lanak» eta ez «anak» direla ahaztu zaio.

Peio Dospitalekin mintzatu gara rugby torneoaren lehenaz eta orainaz

V NAZIOAK, RUGBY TORNEOA SOILIK EZ

Rugbyarekiko aparteko zaletasunik ez izan arren, urte sasoi honetan kirolzaleon zita nagusia bilakatzen da V Nazioetako rugby torneo. Torneo honetan behin baino gehiagotan parte hartu dute euskal rugby jokalariek; orduko eta oraingo egoera eta kontakizunen bila jo dugu hamar urtez Frantziako lehenengo lerrokide titularra izandako Peio Dospital jokalari ezpeletarrarengana.

TWICKENHAM, Cardiff, edo Murrayfield bezalako izenak aipatzean, gehientsuenek rugbyaren usaina hartuko diote seguru aski. Hirurogeita zazpigarren edizioa beteko duen V Nazioetako torneo honek erdibidea egin duenean, gutxiengo batek segitzen duen kirola zabaldu eta beste gutzien gainetik gailentzea lortu du.

1871n abiatu omen zen torneo Ingalaterra eta Eskoziaren arteko neurketa bat izan zela medio. Gutxira Lau Nazioetako torneo bihurtu zen (Ingalaterra, Eskozia, Gales eta Irlanda) eta 1884tik 1947ra arte iraun zuen, Frantziari gonbidapena luzatu zitzaion arte. Ordutik hona txapelketa honek urtez urte oihartzun handiagoa hartu du eta parte hartzen duten rugbyariantz zeruko bidearen parekoa da torneo honetako neurketa baterako hautatua izatea, baita Ipar Euskal Herriko rugbyariantz ere. Euskal herritar ugari, Dager, Zelaia, Duprat, Irazabal, Dospital, Ondartz, Blanco



V Nazioetako bi torneo irabazi zituen Peio Dospitalek.

«**Lehen rugbya langileena zen, hartaka lantegian egindako esfortzuak entrenamendu gisara balio zuen»
PEIO DOSPITAL**

(89 partidu) edo gaur egun jokoan dabilen Jean Michel Gonzalez kanbotarra, besteak beste, Frantziako selekzioetik pasa diren jokalaririk mordoska horren artean ezagunenak lirateke.

Peio Dospitalek 1978tik 1985era bitartean lekua izan zuen lehenengo lerroan, hogeita zazpi partidu jokatu, eta oraindik gogotan dauzka V Nazioetako torneoan bizitako esperientziak: «*Sasoi hartan galtzea gutxi tokatu zitzaidan, bi aldiz irabazi nuen torneoa eta 1981ekoan Grand Chelem-a eskuratuz, gainera*». Hots, torneoko sari nagusia, partidu guztiak irabaziz.

Aipatutako sasoi hartan sei eta zazpi euskal herritar izan zirela hautatuak gogoratzen du Dospitalek. «*Mendian lanean zebilena nabiago baitzuten Parisko bulegoetako funtzionaria baino. Lehen rugbya langileena zen, eta hartaka lantegian egindako esfortzuek entrenamendu gisara balio izaten zuten*», jokalaririk onen ustez.

50.000 lagun sarrera gabe

URTEAK aurrera joan ahala, rugbyak, kirol gehientsuenetan bezala, bereziki presaketan aldetik hobekuntza handia izan du, nahiz eta zaleen erantzunari dagokionez beste kirolekin al-



Frantziako rugby selekzioan lehenengo lerroko kide titular bezala hamar urtetan jasotako irudiekin ageri da irudiotan Peio Dospital. (Argazkiak: Garikoitz Garaialde).

deratuz beherakada handi samarra jo. Baina torneoak datorenean galera horren aztararik ez da sumatzen, ordea. Lehendabiziko jardunaldian Frantzia eta Ingalaterra paratu ziren elkarren kontra Printzeen Parkean eta 96.000 ikuslerentzat edukiera duen estadioa txiki gelditu eta beste 50.000 lagunek, sarrerarik gabe, telebista aurrean ikusi behar izan zuten neurketa (Frantzia nagusitu zen).

Torneo honen arrakastari dagokionez, Peio Dospitalek bere iritzia garbi du: «*Egia da futbolak supituki hartu diola aurre rugbyari, baina estadiotan sortzen*



den giroa biziki hunkigarria da, kirola baino zerbait gehiago dago ingurunean. Bistan dena, Irlanda, esaterako, beste kirol guztietan erdibiturik dago eta bi selekzio badituzte, rugbyan batto eta elkarrekin izugarri

ontsa konpontzen dira. Partidua basi aurretik, bala ere, ez da ereseririk entzuten abal Landsdowne Road estadioan, batzuk ingelesen aldeko eta besteak arrunt kontra izaki». Beste adibide garbi bezala galestarrena ai-



Frantziako selekzioan Dospital, buruan zapia duela, ageri da.

patu digu. Dospitalek azaldu digunez, «berri ttipi honek bogeita biru aldiz irabazi du torneoa eta sekretua, bain xumeak direnez, berriarekiko maitasunean datza».

Garai ezberdinak

GAURKO egunean edozein arlotan profesionalki dedikatu beharra dago goi mailan ibili nahi izanez gero, beraz, gainsari eta kontratxoak ofizialki egon ez arren, ezinbestekoak dira baita rugbyan ere. Frantziako selekziokide batek gutxi asko 200.000 libera (bost bat mi-

lioiz pezeta) poltsikora ditzake urtean zehar selekzioarekin duen loturagatik. «Nik badakit diruak ukitzen duenari zikina dariola, baina ezinbesteko urratsa da eta hala ere rugbyak berezkoa duen mentalitate horri eutsiko zaiola espero dut», diosku Ezpeletako rugby jokalaria.

Nolanahi ere, beste faktoreak kontuan hartu behar direla gogorarazten du: «Profesionaltasun kutsua mesederako beharko luke izan, baina nik ez nituzke Lido edo Folies Bergeres-eko arrats zoragarri haiek, par-

tidu ondorengoak, babeslearekiko loturagatik aldatuko, inolaz ere ez».

Munduko Kopa, 1987an sortu zen rugby txapelketak, mundu zabaleko rugbyari ofizialki ireki nahi izan dizkio ateak, baina lau urtetik behineko maiztasuna duenez, honek ez dio zertan minik egin behar V Nazioetako torneoari.

Aurrera segitzeko mugak hautsi

IAZ, bestalde, Europako Kopa lehiaketa berriari ekin zitzaion, eta bide batez Errumania edo Italia bezalako nazioei goi mailako jokoan parte hartzeko aukera eman: «Rugbyak aurrera segi nahi badu mugak hautsi beharra dago. Ingalaterra eta Eskoziak ez dute parte hartu na-

bi izan aurreko edizioan baina txapelketaren arrakasta ikusita ez dago beste erremediorik». Bestalde, bere ustez Munduko Kopari ez zaio beldurrik izan behar, «hartaka jendeak beste gisa bateko rugbya ikusi eta ikasteko modua izan baitezake, eredu gisara hartu beharrekoak gainera; He-goafrikarrena, 'biderik zuzenena, motzena' leloarekin, rugbya indartsua oso berau; eta Zeelanda Berriaren joko zoragarria, baloiari bizitasuna emanaz, aitzinetik, gibeletik edo ostikoka, finean joko ikusgarria eskaintzeak izango baitu besteak beste rugbyak behar duen etorkizunaren giltza».

MARTIN AGIRRE

«Ez nituzke Folies Bergeres-eko arrats zoragarriak babesleagatik aldatuko»

PEIO DOSPITAL

«'EAEko Unibertsitatea' askoz izen zehatzagoa litzateke»

A benduaren 20an hautatu zuten, bigarren bozketan, eta urtarrilaren 17an hartu zuen ofizialki EHUko errektore kargua. Dagoeneko egoeraz jabetu dela eta galtzak bete lan dituela adierazi digu. Izan ere, ez dira gutxi aurrean dituen erronkak: irakasle kaleratuen auzia, euskalduntzea, deszentralizazioa... Puntu horiek eta beste zenbait gai gehiago aletu ditugu Leioan egindako elkarrizketa honetan.


Sarrera hitzaldian EHU Europa eta Amerikako unibertsitate onenen artean jarri nabi zenuela esan zenuen. Zein da egun EHUren maila?

Helburu hori jarri nuenean banekien hori ezin dela lau urtetan egin, urte asko behar da, baina unibertsitate honek etorkizunean aurrera jo behar baldin badu lehiatu egin beharko du, lehiari sar-

tuak baikaude. European gaude, eta European unibertsitateak onak izango dira izan dezaketen finantziarioaren arabera. Finantziario hori Europak eman dezakeen diruak baldintzatu-ko du. Guk unibertsitate eredu napoleonikoa dugu. Nik ez dut esango hori ona den edo ez, baina hori da guk dugun eredu, gizarte honek berak aukeratua.

«Guk unibertsitate eredu napoleonikoa dugu. Nik ez dut esango hori ona den edo ez, baina hori da dugun eredu, gizarte honek berak aukeratua. Horrek baldintza handiak ezartzen ditu lehiakortasun kontuan».
(Arg.: Marisol Ramirez).





«Euskararen plangintza egitea gure esku dago, baina Hezkuntza Sailarekin eztabaidatu behar dugu. Badirudi honek jarrera berezia duela euskarareriko». (Arg.: M. Ramirez).

Horrek baldintza handiak ezartzen ditu lehiakortasun kontuan. Hemen 60.000 ikasle izan beharrean 30.000 bagenitu errazago izango litzateke lehiatzea.

Irakaskuntza besteen mailaren parekoa du, eta ikerkuntza mailan izan dugun eboluzioa Espainia-koekin konparatuta haiena baino askoz hobea izan da. **Sarrera bitzaldian esanikoekin jarraituz, lau urteren buruan derrigo-**

rrezko ikasgaien % 65 euskaraz eskaintzeko asmoa ere baduzuela adierazi zenuen.

Hemen badira bi gauza: batetik plangintza egin behar dugu hori hala izan dadin. Plangintza hori egitea gure esku dago. Baina plangintza horrek kostu bat izango du, eta hori Hezkuntza Sailarekin eztabaidatu behar dugu. Bi kontu horiek bateratuz gero lehen aipaturiko helburua lortzea posible izango

NORTASUN AGIRIA

Arizkunen jaio zen, Nafarroan, 1951n ● Ezkondua dago eta bi seme ditu: Peru eta Iñigo dute izena ● 1985az geroztik euskaltzaina da, eta egun bertan Gramatika

Batzordean aritzeaz gain, Euskara Batuko batzordeburua da ● Bere afizioen artean, gitarra jotzea oso gogoko duela aipatu digu ● Literatur gustuei dagokienez, Saizarbitoriaren 'Hamaika pauso' da irakurri duen azken liburua, eta izugarri gustatu omen zaio ● Musika klasikoaren oso zalea da, eta euskal kantarien artean Mikel Laboa eta Benito Lertxundi ditu maiteen

« Niri ere unibertitatean Protecsako kiderik ez izatea gustatuko litzaidake, baina behar diren bitartean hemen izango dira »

da. Gainera, badirudi Hezkuntza Sail honek jarrera berezia duela euskarareriko. **Zeintzuk dira orain arteko lorpenak unibertsiteatearen euskalduntzean, eta zeintzuk erronkarik behinenak?**

Ezin da ukatu orain ikasle gehiagok ikas dezakeela euskaraz. Hori lorpen handia da. Zeintzuk dira puntu beltzak? Sartzen zaizkigun irakasleak gaztelaniazkoak baino askoz gazteagoak direla, zentzu akademikoan, eta batzuetan egin gabe daudela. Bestetik, batzuetan ez da erraza irakasleak aurkitzea. Uneotan, atera diren plazetatik badakit batzuk hutsik geratu direla jenderik aurkeztu ez delako. Euskarazko materialaren falta ere nabarmena da.

Azkenik, ikasle askori zail egiten zaio ikasketa batzuk euskaraz hasi eta gaztelaniaz bukatu beharra; ez baldin badute bost urteak euskaraz egiteko segurtasunik, batzuk erdarara doaz. Zerbait tokitan euskal ikasleak erdal lerroetara pasatzen ari dira politizazio kontuengatik.

Irakasle kaleratuen asuntuak bere borretan dirau...

Horretaz unibertsiteateak esan du esan behar duena. Bakoitzak ikusiko du zer aukera egiten duen, baina horiek aukera guztiak izan



zituzten irakasle bezala sartzeko, ez zuten onartu eskaini zitzaizen kontratua, eskaini genezakeen bakarra, eta orain nire ardura da nire esku dauden baliabideak erabiltzea hemen eskolak izan nahi dituenak izan ditzan eta eskolak eman nahi dituenak eman ditzan.

***Dena den, funtzionari-
tzaren alternatiba mo-
dura aldarrikatutako
irakasle kontratuduna-
ren figuraren alde agertu
zarete zuek ere...***

Nik uste dut, benetan, LRUK (unibertsitatearen lege nagusia) zoritxarrez hankaz

gora bota dituela autonomi estatutuan agertzen diren zenbait konpetentzia. Nik uste dut gauza askorengatik ez dela ona unibertsitateak funtzionaritzaren bidea baino ez bultzatzea. Bide bakarra baino gehiago bultzatu beharko liriteke. Egokiena unibertsitateak bere irakasleak izatea litzateke. Bai bide batetik bai bestetik kalitatea segurtatu beharko litzatekeela.

Egin ezin dudana da beste bide bat bultzatu -eta hori gainera ez dago nire esku, Gobernuaren esku baino-, bide horren atzean uniber-


tsitateko irakasle izateko modu errazagoak edo kalitate eza gordetzen badira.

***Protecsako zinpeko
zaindarien presentziak
eta euren jokabideak ere
zeresan askotxo eragin
dute...***

Beharrezkoa da horrelako enpresa bat egotea, hemen milioi asko dagoelako. Niri neuri bi aldiz lapurtu didate autotik. Errektoretzan bertan bi lagun bahitu dituzte. Seguritate neurriak izan behar direla uste dut. Neurri horiek horretarako erabili beharrean beste zerbeitetarako erabiltzen baldin badira, beti galtzaile aterako gara. Ahaleginak egin behar dira hori ez egiteko. Niri ere unibertsitatean Protecsako kiderik ez izatea gustatuko litzaidake, baina behar diren

«Deszentralizazioa bultzatu beharreko lehenbiziko gauzetakoa da, baina zaila da praktikara eramateko. Esate baterako, kanpuse-tako gerenteordeak aurkitzeko izugarritzko lanak ditugu. Dena den, hori da bidea, eta berehala hartuko ditugu neurriak.»
(A.: Marisol Ramirez).

«Nik ezin dut beste bide bat bultzatu, atzean unibertsitateko irakasle izateko modu errazagoak edo kalitate eza baditu»



«NUPekin lankidetzaren hitzarmena sinatu zen, baina harrezkero hango taldea eta hemengoa aldatu egin dira. Nik ez dakit hango taldea prest dagoen orain horrekin aurrera egiteko». (Arg.: M. Ramirez).

artean hemen izango dira. Zenbait gauza segurtatu beharra daukat: nahi duenak eskubide osoa dauka bere adierazpen askatasunaz baliatzeko, hemendik paseatzeko, eskolak hartzeko, eskolak emateko (beti ere hemengo irakasleak baldin bada, jakina)... Hori da nik babestu behar dudana. Etortzen baldin bazait norbait eta etortze horren ondorioz berak eskolaren bat ematea eragozten baldin badu, nik ahaleginak egin behar ditut eskola hori hartu behar dutenek eskola izan dezaten.

Deszentralizazioaren inguruko eztabaida berobero dago Gipuzkoan.

Deszentralizazioa bultzatu beharreko lehenbiziko gaudetako da, baina oso zaila da praktikara eramateko. Esate baterako, kanpusetako gerenteordeak aurkitzeko izugarritzeko lanak ditugu. Dena den, hori da bidea, ez dut inolako zalantzarik, eta

berehala hartuko ditugu neurriak.

Iazko apirilean egin zen UEUren lehen kongresua, eta bertako txostenen bilduman aipatzen denez EHUen euskara egoera diglosikora kondenatuta dago. Horregatik eta beste kontu batzuegatik (lurraldetasuna, esaterako) euskal unibertsitatearen premia aldarrikatzen dute. Zer deritzozu?

Euskara egoera diglosikoan dago, hemen eta gizartearen ere. Bide batetik segitu behar dugu; honek segurtatu behar luke lehenbiziko neurri bezala unibertsitatea elebidun egitea eta jendeak euskaraz eta erdaraz askatasun osoz egin ahal izatea. Hortik pentsatzera hemen

euskaraz bakarrik egingo dela... Beste eztabaida batean sartzen gara. Eztabaida hori unibertsitate ereduaren kontuarekin lotua dago. Agian beste eredu bat buruz hitz egitean pentsatu behar da aukera ez dela hiru kanpus, bat teknologikoa, beste bat ez dakit zer nolakoa eta bestea auskalo zelakoa, baizik eta kanpus bat euskalduna eta bestea ez. Hor sar liteke euskara hutsez funtzionatuko lukeen unibertsitatearen eztabaida. Niri gustatuko litzaidake unibertsitate euskalduna izatea, baina, errealistak izanik, momentu honetan ez dut uste inolako baldintzarik denik euskalduna bakarrik izateko.

'EAEko Unibertsitatea' ez al litzateke Euskal Herri-

ko Unibertsitatea baino izen egokiagoa?

Bai, nik uste dut hori askoz izen zehatzagoa litzatekeela. Euskal Herriko Unibertsitatea deitzen zaio honi baina egia da Euskal Herria erkidego hau baino handiagoa dela. Gertatzen dena da niri EHU izena bera asko gustatzen zaidala, baina bestea errealistagoa da.

Iaz Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin (NUP) lankidetzaren hitzarmena sinatu zenuten, eta barruti bakarra ere bizpide izan zen. Zertan gauzatu liteke hori?

Hura sinatu zen, baina harrezkero hango taldea eta hemengoa aldatu egin dira. Nik ez dakit hango taldea prest dagoen orain horrekin aurrera egiteko. Gauza batzuetan uste dut baietz. Etorriak dira, eta esperientziak elkartrukatu ditugu. Nik, nafar bezala, ahaleginak egingo ditut horrekin aurrera segitzeko, baina haien

«LRUk zoritxarrez hankaz gora bota ditu autonomi estatutuan agertzen diren zenbait kompetentzia»

«Gustatuko litzaidake unibertsitate euskalduna izatea, baina, momentuan ez da baldintzarik berau euskalduna bakarrik izateko»

borondatea ere ikusi beharko dut. Hor esaten zen gauzetako bat zen barruti bakarrena. Honek bi irakurketa izan ditzake: batetik, barruti bakarra jarrera ideologikoagatik justifika liteke; bestetik, argumentazio akademiko hutsetik ere bai, ezen gure erkidegoan biztanle gutxiegi baitago lehiakortasuna bultzatzeko. Zenbat eta zabalagoa izan barrutia orduan eta jende hobe ekarriko da. Argudio hau oso indartsua da. Hori da bidea, eta ni ahaleginduko naiz NUPekoekin honetaz hitz egiten.

Ba al dago elkarlanik Euskal Herrian ditugun unibertsitateen artean?

Hitzarmen zabalena NUPekin dugu. Gero gauza asko egin ditugu, bai Deustukoarekin bai besteekin. Gauzak egiten dira, baina ez dago elkarlan arauturik. NUPekin zenbait gauza egin daitezke: elkarrekin dokto-retza ikasketak eskaini, irakasleak trukatu eta abar. Momentuz, ordea, elkarlan hori ez da gauzatu.

Unibertsitatea eta gizartearen artean desfase nabarmena dagoela dio zenbaitek.

Eliteak formatzea da unibertsitatearen zereginetako bat. Gizarte honek aurrera aterako duen jendea behar du eta jende hori lortzea da unibertsitatearen helburue-



«Bultzatu nahiko nuke maila batean enpresekin-eta lotura». (A.: M. Ramirez).

tako bat. Horrek ez du esan nahi, inolaz ere, gizartetik kanpo egon behar dugunik. Nik bultzatu nahiko nuke maila batean enpresekin-eta lotura, hemengo enpresek oraindik nekez jotzen baitute gugana.

Elkarrizketan zehar behin eta berriz aipatu diguzu lehiakortasunaren

kontua. Heziketa eta lehiakortasuna ez al dira termino kontrajarriak? Ez al da mugatu unibertsitatea sistemak behar dituen produktuak ekoiztera, kritikotasuna bazter utzita?

Non gauden jakin beharra daukagu. Ezagutzen dugun gizarte eredu konpeten-

tzian oinarritzen da. Konpetentzian oinarritzen ez diren ereduak porrot egin dute. Baldintza horren barnean saiatu behar gara, dudarik gabe, horri erantzuna ematen eta jende kritikoa sortzen, eta bi gauza hauek ez dira kontrajarriak.

AITOR ZUBEROGOITIA

Expolangues: hizkuntzen merkatua

HASIERA batean Babelgo dorre handi gisa munduko hizkuntzen berri zabaltzen zuen Parisko Expolangues azokak hainbat aldaketa ezagutu ditu hamairu ediziootan zehar, bai lekuz bai helburuez, eta egun azoka komertzial gisa jarduten du, turismoaren alorrean eta informatika bidez hedatzen ari diren hizkuntzen ikasketarako metodoei garrantzia eskainiz, amaitu berri den azkenekoan ondo ikusi den bezala.

Aurten ere, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernua mahai berean aurkeztu dira. 1985ean azaldu ziren estreineko aldiz euskal ordezkariak Parisen, Euskaltzaindiaren bitartez. Hurrengo urtean Eusko Jaurlaritzako HPINek hartu zuen erreleboa, eta bi urte beranduago Nafarroako Gobernuarekin batera osatu zuten *standa*, gaurdaino.

BI erakundeon artean erdibana osaturiko erakusmahai hainbat material ikusi ahal izan da azokak iraun duen bost egunetan zehar: euskara ikasteko testuak, HABEren argitalpenak, Nafarroako gida turistikoak, hiztegiak eta hizkuntza nahiz historiari buruz frantsesez kaleratutako liburuak. Berrikuntza nagusia ordea, «Euskara, atzo eta gaur» CD-ROMa izan da, euskara, erdara eta frantsesez kaleratu dena.

Azokan izan dira ere, lehen aldikotz, Daniel Landart eta Txomin Hegi, Euskal Kultur Erakundearen izenean baina mahairik jarri gabe. Halaxe zioten ARGIAri: *«Etortzea deliberatu dugu, benetan zer den ikusteko. Hala ere, datorren urtean aurkezteko erabakia hartzen badugu, mahai bakarraren inguruan izan beharko lukeela pentsatzen dugu, EAE eta Nafarroarekin batera alegia, eta bertan Iparraldean*

euskarak bizi duen egoera erakustea dagokigula guri.

EUSKAL ordezkarien artean azpimarragarria izan da bai EAEko bai Nafarroako Hizkuntz Politikako ordezkarien presentzia, Josune Aristondo, Xabier Aizpurua eta Jose Manuel Legarrarena, hain zuzen. Josune Ariston-

■ Hasierako helburuak baztertuta, Pariseko Expolangues azokak hizkuntzen alorreko industriari eta turismoari erreparatzen dio beste ezeri bainoago

86 urterekin hil da Rufino Arrola, maisurik gabe soinua jotzen ikasi ondoren, 18 urterekin lanean hasi zelako albortu eta, 40 urte beranduago, plazarik plaza hasi zena. Egun plazaz plaza ari direnen artean zaharrena genuen. 1979an disko bat atera zuen Luis Bilbao soinu jolea eta Kepa Arrizabalaga pandero jolearekin batera: «Bizkaiko trikitilariak». Zigarroa beti ahoan, egundoko umorea... Bizkaiko trikitixatzaletan izan denaren azken adibidea joan zaigu. (Argazkia: Xouse Simal).



Europako lehen familia

do eta Jose Manuel Legarrak Parisko Euskal Etxeak antolaturiko mahai inguru batean parte hartu zuten, Txomin Hegirekin batera, euskararen egoera aztertu xedez. Mixel Irigoien Parisko Gau Eskolako lehendakariak zuzendu zuen saiora 65 lagun bildu ziren, diasporako euskaldunak, gau eskolako ikasleak eta La Sorbonako irakasleren bat tartean izan zirela.

Mahainguruaren bitartez, denbora luzez administrazioen eta Parisko euskaltzaleen artean etenda egon den harremana berrartu dela azpimarratu zigun Mixel Irigoienek: *«Hasiara batean, euskara ikasten ari zen jendeak zerbitzatzan zuen mahaia, harreman mundu bat jorratuz. EAE eta Nafarroako Hizkuntz Politika zuzendari- tzeak ardura hartu zutenetik baina, erabat eten zen presentzia. 1992an urtean proposamena luzatu zitzaion Euskal Kultur Bidean erakundetik Mari Karmen Garmendiari, mahaian elkarrekin aritu eta Pariseko euskaltzaleen egitasmoak azokaren bitartez zabaltzeko. Orain arte ez da ezertxo ere egin eta aurten eten da dinamika, onerako zorionez».*

GIRO oneko harremanok ez dute ezkututzen hala ere, Expolangues azokak aurrera daraman politika. Izan ere, gero eta nabariagoa da irakaskuntzaren ikuspegia jorratuz zibernetikaren eskutik datozen hizkuntz akademien presentzia, eta honekin batera Europako hizkuntz nagusia. Ingelesa, frantsesa eta gaztelera dira azokan leku eta arreta gehien jasotzen dutenak. Bere txikitasunean alabaina, hainbat hizkuntz gutxituek beren *standari* eutsi diote, hala nola galegoek, katalanek, bretoiek, okzitaniarrek eta bestek, nahiz eta zaila duten turismo zentru, kultur enbaxada edo instituzio sendotuekin lehiatzea.

Azken finean, eta hasierako helburuak baztertuta, Azokak hizkuntzen alorreko industriari eta turismoari erreparatzen dio beste ezeri bainoago.

JULEN ARRIOLA

HORRELA deitzen die euskaldunei mundu osoan ezaguna den «National Geographic» aldizkariak azaroan argitaratu berri duen idazlanean. «The Basques» deitzen da eta seguru egon pittin bat ezagunago izango garela hemendik aurrera lan horri esker. Hori eskertzekoa da, baina orain ikusi behar zer esaten duen gutaz egileak, jakina baita halako idazlanetan —eta lehendik ere atera izan gaituzte mundura honelako eta antzeko publikazioetan— topiko, gehiegikeria eta gezur bat baino gehiago aurki daitekeela erraz. Oraingoan ordea, nahiz eta badagoen topiko eta gehiegikeria frango, aurkitu diot nik zerbait ezberdin eta aski poztu nauena, hots, nabari dela artikulua honen egileak —dena delarik ere— baduela Euskal Herriarekiko halako amodio eta oniritzi aldeko bat. Eta hori da benetan garrantzitsua, jakina baita ezin dela lan mardul, sakon eta borobil bat egin hamar orrialdetan. Horregatik kontuak hartzekoa dena zera da, zer iritzirekin geratuko den azkenean, eman dezagun, Singapour, New York, Erroma edota Helsinkiko irakurle bat euskaldunei buruzko hamar orrialde horiek irakurri ondoren.

GUSTORA sentitu da idazlea gure artean, ikusten zaio maite duela Euskal Herria eta interesgarri, lagunkoi eta maitagarri egin zaizkiola bertako euskaldunak. Eta hori guztia artikulura pasatu du eta hori da azken finean munduko edozein irakurlek gugandik jasoko duen iritzia. Are gehiago esango nuke oraindik: esan dituen topiko, gehiegikeria eta egjerdiak ere, gure onerako izan direla. Abercrombie jaunak duda izpirik gabe esaten du Euskal Herria zazpi probintzietan osatua dagoela eta azaltzen den mapan ere horrela ikus daiteke. Askotan ikusita gaude nola Espainian edota Frantzian «National Geographic» honen antzeko baina garrantzi gutxiagoko aldizkarietan ez den inondik ere onartzen sailken hori eta, adibidez, euskaldunetaz hitz egiterakoan errebista espainolek hiru probintzia soilik aipatzen dituzten, eta errebista frantsesek beste hainbeste. Abercrombiek Euskal Herriarekiko duen maitasunak bultzaturik esaten digu euskaraz ikasteari ere ekin diola nahiz eta segidan aitortzen digun izugarri zaila dela hizkuntza bitxi eta aintzinako hori («duela bost mila urte bertan hitzegiten zen bera») ikastea.



JOXEMARI ITURRALDE


ABERCROMBIE mugitu da handik eta hemendik, joan da Bilbotik Maulera, Miarrizetik Gasteiza eta Iruñeatik Aizkorri eta Urbiaraino bertan bizi den jendea ezagutzeko asmoz. Eta hori da kontatzen diguna: arrantzaleen egoera Getarian eta Hondarrabian, euskal presoen egoera Senideakekoek emandako informazioaz, Ibarrolaren lanen berri Omako basoan, txakolinaren gora-beherak eta nola ez, San Ferminetan bizi daitekeen giroaren berri. Azkenik, nahiz eta ohartu gauza piloa falta dela eta esandako guztia ez dela horrela, irakurlea Euskal Herriarekiko aldeko joera hartzera dago bultzaturik eta bertan bizitzeak ongi balio duen zerbait dela jasotzen du azken iritzizat. Eta guk —euskaldun garen ezker- zer esan behar: «Se non è vero è bene trovato».

T X U T X U - M U T X U K A


«BI HARRIZ, LAU XORI» EKITALDIK MIARRITZEN

BIGARREN aldiz egingo dira «Bi harriz, lau xori» deitu ekitaldiak Miarritzen, «Colisée» gelan, martxoaren 18tik 23era. Lehen egunean «Seni-tartea» erakusketa zabalduko da, Bilboko euskal arkeologia, etnografia eta historiaren museoak moldatua. Martxoaren 19an, «Herrialde urdina» obra aurkeztuko du Kukubiltxok, eta honekin batera, mintzaldia izango da «Hizkuntza gutxituak Europan» gaiaren inguruan. Martxoaren 21ean, Jose Antonio Artzeren olerki eta testu emanaldia eskainiko da. Azkenez, martxoaren 23an, «Pagola kantatuz» emanaldia izango da, Manex Pagolaren kantuak hainbat kantariet emanen dituztelarik.

N O R - N O R I - N O R K

**J.M. MENDIZABAL**

EKBko lehendakariak aipatu duenez, jarduera politikoan euskararen erabilera arautzeko proposamena luzatu die alderdi politikoei. Gizarte erabileran eta instituzio politikoetan aurrera eraman beharreko hainbat iradokizun eta lehenetsun aurrikusi ditu EKBk, «gutxieneko neurriak» liraketeenak, euskara finkatzeko pentsatuak. Alderdi politikoek proposamen hau aztertzeke konpromezua hartu dute ●

**RAFAEL MARTIRI**

Eusko Jaurlaritzak bera zuzendari duen Euskadiko Balleta baztertu egin duela entzun diogu, konpainiako produktore eta dantzarietkin egindako prentsaurrekoan. 38 milioi pezetako laguntza hitzemanda zutela eta 13 milioi pezeta baino ez dituztela jaso adierazi du, horretarako eman zaien argudioa, urtean zehar lau saio soilik egin dituztela, gezurra dela esanez ●

**J.M. RODRIGUEZ OTXOAK**

Nafarroako Euskararen Legea aldatu eta irakaskuntzaren alorrean zonifikazioa desagertu egingo dela esanez berriki Parisen egindako adierazpenak gaizki hartu ditu Nafarroako Gobernuak. ARGIAK jakin duenaren arabera, gai honen inguruan ahorik ez zabaltzeko agindu dio Gobernuak Hizkuntza Politikako zuzendariari, hartu daitekeen ezein erabaki parlamentuari dagokiola argudiatuz ●

T E I L A K

■ EIBARKO

ANTZERKI

JARDUNALDIK

MARTXOAREN 2an abiatuko dira Narruzko Zezen taldeak antolatutako Eibarko XIX. Antzerki Jardunaldiak, inoiz baino programazio zabalagoaz, guztira 23 obra aurkeztuko direla. Aurreko edizioekin alderatuz gainera, are nabarmenagoa izango da euskal taldeen presentzia, zazpi taldek parte hartu eta lauk euskaraz jardungo baitute: Teatro Gasteiz («La zorra ilustrada»), Bederen 1 («Zu(t)gabe»), Markeliñe («La Garbo, S.A.»), Maskarada («Ernesto izatearen garrantzia»), In Fraganti («Oleanna»), Tanttaka («Umekeriak») eta Traspasos («Pasarela»).

Madrileko lau antzeztalde (Pentaleon, Fundiciones Teatrales, Teatro Zascandil eta Angel de Andres eta Iñaki Miramon), Bartzelonako Teatro Fronterizo eta Festino Baroco, eta Pepe Rubianes, Producciones Ñ (Extremadurako Suroeste Producciones, Castilla-La Manchako Fuegos Fatuos, Madrileko Cambaleo Teatro eta Euskal Herriko Eolok osaturiko konpainia), Canadako Paul Wildbaum eta Argentinako Compañía La Porteñak osatuko dute nazioarteko eskaintza.

Unibertsitatean sortzen den antzerkiari bestalde, arreta berezia eskainiko zaio, Kantabriako Escuela de Arte Dramatico, Tarragonako Luis Vives eta Eibarko Narruzko Zezen taldeen eskutik. Azkenik, antzerkia eta zinema lotzen dituen saila zabalduko da, lau filme pantailaratu. Funtzio guztiak Eibarko Unibertsitateko hezkuntza esparruko antzokian egingo dira.

Otsailaren 25ean abiatuko da Baigorri Nafarroako bertsolarien lehia nagusia

Txapelketaren gaztaroa

Haize berriak datoz aurtengo Bertsolari Txapelketa-rekin. Iaz baino partaide gehiago, bi kanporaketa izan beharrean hiru eta sailkapen sistema berria, gazteek gogor bultzatzen dutela.

ZENBAIT berrikuntza dakartz aurtengo Nafarroako Bertso Txapelketak, hauen artean kanporaketen kopurua. Bi izan beharrean hiru kanporaketa egingo dira, bakoitzean sei bertsolarik parte hartuko dutela. No-bedade honek arintasun gehiago lortzea du helburu, alegia, Gipuzkoan egin denaren antzera saioak laburragoak egitea. «*Lehen luze samarra bilakatzen zen, bi kanporaketa baikekituen, bakoitza zortzi bertsolari-*



Nafarroako Txapelketak esperientziadun jendea eta hasi berriak bilduko ditu oholtzan. (Argazkia: Leire Arzuaga).

rekin, azaldu du Josema Leitzak Nafarroako Bertso Elkartetik.

Txapelketaren hasierako su-ziria otsailaren 25ean piztuko da Baigorri, bertan

Estitxu Arozenak -aurreko txapelketan irabazle- kantatuko duela. Bigarren saioaren zita Atarrabian izango da martxoaren 3an, eta bertakoek lehenengo al-

diz txapelketan sartu den Nerea Bruño atarrabiarra entzun ahal izango dute. Altsasun martxoaren 10ean izango da azkeneko kanporaketa, finalaurrea 17an Beran eta final nagusia, berriz, Goizuetan izanen da martxoaren 24an.

Aukera gehiago

SAIO bakoitzean hamabi bertso epaituko dira eta puntuaziorik altuena lortzen duen bertsolaria zuzenean joango da finalera; bigarren puntuaziorik altuena lortzen duena, berriz, finalaurreko atarian izango da.

Aurreko txapelketetan lehenengo biek finalera zuzenean iristea lortzen zuten arren, oraingoan ez da horrela gertatuko. Hirugarren kanporaketan, aurrez sailkatutako hiru bertsolariekin finalaurrea joango diren izenak ezagutzera emango dira. Guztira, beraz, zortzi bertsolarik taularatuko dute beren saioa finalaurrean. Finalera puntuaziorik altuena duten bostak aurrez klasifikatutako hiruei gehituko zaizkie. «*Honekin, nolabait, zuzenean inor kanpora joatea saibestu nahi izan dugu, bi aukera edo eman-*

Ekialdeko bertsoaren alde zuri-beltzak

Duela hogeiren bat urtetik honat, hemengo bertsolaritza hurbiletik jarraitu duenak badaiki aski aro ezberdinak izan direla bide nekoso horretan. Dionisio Mugikak, 1979an, bazterrak mugitzen hasi zenean, dozena erdi bertsolari agertu zen Lesakan. Paulo Yantzi sariketatik Nafarroako Txapelketara pasa eta hainbat urtez hogeita bosten bat bertsolari aritu ziren saioz saio, txapela buru frankotan pausatu zelarik. Gehienak molde zaharreko bertsolariak ziren, etorri handikoak, horrietatik zenbait neurriaren

ez oso lagunak, baina ziria bazter uzten ez zutena.

Jakina, urteko berberak ziren, eta hemengo bertsozalea, begi bazterrez, Gipuzkoara begira jarri zen, hangoen maila gero eta handiagoa izaki. Horrexegatik, berehala gailendu zen Arozenaren bertsoakera; Elizagoienek, bere aldetik, goiti egin zuen izugarri, eta, finean, iazkoan, bertso eskolak nagusitu ziren Estitxu Arozenaren bidez. Horrek animorik gabe utzi ditu plaza gutxi eginda gorantz jo ezinean dabiltzanak. Jendea, bertzalde, erraza-

go ateratzen da gaztearen alde 'mando zaharraren' alde baino, eta, horrexegatik, sekulan baino gaztetuago agertzen zaigu aurtengo lehia, hiru aurpegi berri ikusteko parada izanen baitugu, non eta Iruñeko eskolan hasi eta trebatuak. Dena den, toki guztietan gertatzen ari da gaztetze hori, eta, ez da bidezkoa gazteen eta helduen arteko ustezko hikamika hori harrotzea, ez baita horrela. Kontutan hartu behar da gainera, hemengo gazteak berehala helden direla, eta, hogei urte inguruan dabilzanez



K. Diez de Ulzurrun
Euskalerrria Irratiko
esataria

hobe dute bai trebe aritzea, bertzenaz 17-18 urtekoek azpian harrapatuta geldituko dira.

go zaizkie. Aurreko sistema deserosoa izan zitekeen bertsolariarentzat

Manolo Arozena lesakarra ere iritzi berekoa da, sistema berriarekin arintasun gehiagorik lortzen dela. Estitxuk, bere alabak, badu zeresanik sistema berri honetaz: «*Hemezortzi bertsolariaren artean lau-bost saio egiteko sistema bat asmatu behar zen, eta nik uste polita gelditu dela.*»

Aldaketa honen ondorioz, epaimahaiko partaideen kopurua zortzi lagunetik seira murriztu da. Epaimahaia zeresan ugari sortu zuen aurreko bi lehiaketetan, batez ere zenbait gazteren aldetik. Epaimahaiko kidea den Mikel Bujandaren iritziak, bertsolariak beraien gan konfiantza izatea beha-

rezkoa da. «*Konfiantzarekin argi geratu behar du txapelketa bat hasi baino lehen, bestela alferrik gabiltza. Gure aldetik ez dago ez prejuizio ez maniarik.*» Izpirituk kritikoa edukitzea ongi dagoela dio Bujandak, baina autokritika ere garrantzitsua dela. «*Gazteek ezin dute pentsatu finalera iritsi izanagatik dena egina duenik. Euren maila aberasten eta igotzen joan behar dute.*»

Gazte gehiago

AURTEN ere azpimarragarria da bertsolariaren gaztetasuna: erdia, gutxi gorabehera, 25 urtetik beherakoa da. Hiru aurpegi berri azalduko dira plazan, hirurak 18 urte egin berriekin. Ekintza Landa iruindarra Baigorriko

kanporaketan izango dugu, Nerea Bruño Atarrabian eta Altsasun, azkenik, Oskar Estanga. Hauetaz aparte, Txomin Amorena eta Antonio Olano gazteak aurrekoan huts egin ondoren itzuliko dira taulara.

Iaz irabazle suertatu zen Estitxu Arozena ere indarrez bultzaka dator nahiz eta, berak aitortu duenez, oso arretatsu ez dabilen. «*Beste mila gauzarekin nabil orain, ez naiz oroitu ere egiten txapelketa datorrela; egunean bertan kontzientziatu behar dut.*» Manolo Arozena, lau aldiz Nafarroako txapeldun izana, bere alabaren atzetik geratu zen azken edizioan. Oso ondo prestatu ikusten du berak Estitxu, besteekiko abantaila bat duela argudiatuz, hots, bertsoak gozatzearena.

Bien artean liskarrik ote dagoen jakin nahi izan dugu: «*Beti jotzen diogu adarra elkarri, baina beste gauzakin bezala. Ni txapelduna*


ez izatekotan bera izatea nabia nuke»

Manolo Arozenaren ustez, batzuentzat lehenbiziko txapelketa dela kontuan harturik, kanporaketan maila ez da oso altua izango. Dena dela, berak azaltzen duenez, «*gu horien artean egoteak asko animatzen du. Gazteen artean eroso sentitzen naiz oso.*» Aurten bere burua nola ikusten duen galdetuta, irabaztera aterako dela aitortu digu; hala ere, «*sartu den jende berriaren txanda da orain. Baina ni ere irabaztera aterako naiz. Gazteak irabaztea ona da bertsolariarentzat, oro har, eta bereziki ona Nafarroarentzat.*»

Sasoi onean?

BERTSOLARITZA Nafarroan sasoi onean dagoela esatera ez da ausartzen Josema Leitzua. Bertsolariak dagokienez ikusten da gazteak aurrera datozeala —hiru aurpegi berri eta erdia 25 urtetik behe-

■ **Bertsolarien erdiak 25 urtetik beherakoak dira aurtengo edizioan; hiruek 18 urte egin berri dituzte**



Estitxu eta Manolo Arozena, aurten ere txapela eskuratzen saiatuko dira. (Argazkia: Leire Arzuaga).

rakoa—. «Iaz bi izan ginen berriak, Xabier Legarreta eta biok, aurten biru berri. Harrobia badagoela ikusten da. Bertsolari zabarrek ere kantatzeari eusten diote. Bestalde, bertso zaletasunari dagokionez, hori ere gorantz doa. Batez ere Iruñerrian edo bertsolaritza hain zabaldua egon ez den eremutan». «Hitzetik-Hortzera» saioa telebistatik kendu izanak ere eragina izan duela adierazi du. «Euskal Herri osoan gertatu denaren antzera, saio berezi bori kendu izanak txarreako eragin du. Ikusiko dugu orain berriro emititzen dutenean zer gertatuko den».

Manolo Arozenaren ustez, oraindik ezin da esan Nafa-

roako bertsolaritza ziurtatuta dagoenik. Gazteak ongi ari dira eta horregatik bizirik dagoela esan daiteke, baina arazo nagusi bat dago: txapelketaz kanpo, gazteek oso aukera gutxi dutela plazan abesteko. «Ilusio falta hau nabarmentzen da. Saio sakona egin behar du bertsolaritzak oro har bertsolari egiten diren gazteak hor mantentzeko».

Bertsolari nafarrek Euskal Herriko Txapelketan egiten duten lanaren gaia mahai gainean jarri diogu Manolo Arozenari: «Orain arte Nafarroan maila nabiko antzua egon da eta ni finalurrera iritsi izan banaiz ere, ez dugu inongo presarik».

IXIAR ROZAS

La Casa del Café

— Juan Irujo, S.A. —
DONOSTIA

Sentimenduek ehundutako oihalak: maitasun gutunak

Bergarako IV. Maitasun Gutunen Lehiaketako irabazleak pasaden astean eman zituzten ezagutzera. Aurtengo honetan UBIko irakasle batek ikasle bati egindako gutunak irabazi du lehen saria.



15-20 urte bitarteko gazte jendea da, batez ere, gutun lehiaketa honetan parte hartzen duena.

EZ dirudi ohikoegia maitasun eta desamodioak gutunez adieraztea egun. Batez ere telefonoak, eta fax eta abarrek, ongarrria jan bide diote lumari azken aldian. Ez liteke halakorik tinko baieztatu, ordea, Bergaran jaso duten gutun kopuruari begiratuta. Are gutxiago amodiozko aitorten idatzirik egiten ez dakigunik. «Eta orain zer?/ Dagoeneko erri-me neska zabartutako honen lehen eta azken aitoren

tza izango duzu hauxe, honela bada... badakizu: zuzenean bebeko sutara bota edo aurrera egin.

Hamabiru urte bete nituenean jabetu nintzen mutilkeria franko egin arren neskatura nengoela. Nebak eta hirurok sarri ogetan genuen sasoi bartan elkarrekin. Akordatzen zara auzokoaren artotzan sartu eta gero antoloi la-

purretan zelan gozatzen genuen. Egun batetik bestera ordea lotsa, ikara... zer zen bura... bibotza zartatu zenidala konturatu nintzen(...).

(...)Eta adio esan behar zuri ere haragizko zaren horri, datorren astean Ameriketaratuko baitzara.

Dena tik-tak batean deuseztua, ni uzkur, ilun eta herabe biziko naiz kan-

tariak dioen bezala, edo bebarbada ez.

Zein mahastitako ardo txuria edan abal izango dut bemendik aitzina? e?». Bartzuek badute zer adierazia, Aintzane Arrietaren gutun sarituak erakusten duenez.

Bergara aitzindari
BERGARAKO «Berrigara» aldizkariaren 100. alea ateratzekotan zebilen Jardun tal-

Emakumezkoak izaten dira eskutiz gehien idazten dituztenak: aurten 176etatik 102 emakumeenak izan dira eta 74 gizonenak

dea. Duela lau urte. Zenbaki biribilarekin batera ordea, zerbait berezia egin nahi izan zuten. Euskara bultzatuko zuten ideia batzuk bota ondoren, maitasun gutun politena aukeratzeko lehiaketa bat egitea pentsatu zuten. Laugarren edizioa bete du lehiaketak, eta jadanik bai erantzun e^ota interes aldetik arreta nahikoa piztu duen sariketa bihurtu da.

Emakume gehiago

LEHENENGO urtean amodio, deklarazio, desesperazio eta bihotzeko beste hainbat sentimendu biltzen zituzten 240 eskutiz jaso zituzten talde honetakoek; bigarren urtean kopuru hau jaitsi egin zen; iaz 200era iritsi zen jasotako gutunen zenbakia eta aurten 176 pertsonak erantzun diote Jardun taldearen deialdiari. Idazkiak, gainera, Euskal Herri osotik iristen dira. Gipuzkoatik 123 eskutiz bidali dira. Bizkaitik 40 lumaren emaitza goxoa iritsi da, eta Araba eta Nafarroatik, berriaz, bosna. Iparraldetik ere badirudi jendea animatzen doala, iaz bost pertsonaren erantzuna jaso baitzuten eta aurten hirurena.

Emakumeak dira maitasun gai hauetaz gehien idazten dutenak, sariketa honetan bederen. Hala ere, aurtengo edizio honetan gizonen kopurua handitu

Maitasunaren ikasgaia

...Ikasleoi bizkarra ematen nizuen orotan erasotzen zidan hotzikarak, behatz izoztu batzuk ferekatzen zidaten lepoa, astiro-astiro, bizkarrezurrean behera, ornoen eskailera minberaturik gerrirako bidea hartzen zutelarik. Esku hotz eta ikustezin horiek gerriaren bihurtzea hartu eta sabelerantz irristatzen zitzaizkidalda somatzen nuenean, berdin zion idazten ari nintzena bukatuta egon hala ez, ziztu batean biratu eta arnasestuka begiratzen nuen klaserantz.

Guztiek ziharduten, arbelean akatsez jositako letra dardarti lain alda korrez daztita zegoen testu korapilatsuari so, fisik ere ulertu barik, jo eta ke kopiatuz. Denek, zuk ezik, Besoak gurutzatuta eta aulkian balantzatuz, irribarre maltzurra sumatzen nuela iruditzen zitzaidan, ziur nengoen zure eskuak arestian nire soinean oilo-ipurdia erein zutenak zirena. Ez nuen zalantza izpirik ere.

Zer boteretsu batek hitzaren ahalmena kendu zidala sentitu izan nuen maiz egun gogaiakari haietan eta, adimena izaki beldurgarri haren ikustearekin lausotuta neukaneez, nekez erantzuten nien zuek itaundakoei. Horretan ere zu zinen ankerrena. Ez zinen besteen sinplekeriak galdetzearekin asetzen, geiago nahi zenuen. Nere buruaren hondartza zabala eta irekia uste nuenera ordura arte inoiz heldu ez ziren bago apartasuen abarrotsean garraiatzen zenituen galderak, marinel galduen emazte eta amek naufragioaren hondakinak hare bustian indarge dautzatela ikustean bezalaxe, angustiaren ganibet hotzaren ziztadak euren barrunbeak hustutzen dizkienean pairatzen duten mina nigan jasanaraziz.

Ez zen gaiaren inguruan neuzkan hutsuneak agerian jartzeak gehien samintzen ninduen, nahiz eta horrek zekarikidan buruhauste mordo batere arbuigarria ez izan. Ez, ez zen hura latzena, uneoro biluzik eta bortxatua sentitzea baizik, adimen makur baten harietatik zintzilik egotearen sentsazioa, eskenatokian, atsegina ez zitzaidan pertsonaia hutsal bezain barregarri baten antzezpen goibela burutuz, errukia pizten duen trapu kolorgez eta pipiak jandako zurez baldarki eta ganora barik eginiako txotxongilo zaharkitua bainintza.

Zeu zinen hor goitik gidatzen ninduen. Gabonetako garaia feltzeaz zela eta ez nuen nortasunik jada. Zure klasean nengoelarik, buztinezko oinarri batean zut sartutako adar puska batean itsatsita, disekatutako txoria nintzen, espresiorik ez zuen kristalezko begirada, errairik gabeko magala, zureko airea harrotzeko gogoa joan zitzaizen hegoak, kanturik gabeko moko hertsia.

Gainerako taldeetan, gorabeherak gorabehera, normaltzat jo daitezkeen hankasartze zein arrakastak nituen, "U.B.I.A" letrak bernizaren gainean pintatutako atera inguratu ahala, aitzitik kemenak abandonatzen ninduen, amiltzera doan autotik salto egiten duen gizaki estutuaren antzo.

Nire ikararekin bakarrik geratzen nintzen...

Imanol Sorondok irabazi du aurtengo Bergarako maitasun gutunen lehiaketa.

egin da; emakumezkoen 102 gutunen ondoan gizonen 74 eskutiz bildu dira. Eta hara, urte honetako irabazlea gizonen kopurua suertatu da; Hernaniko Imanol Sorondo gaztea «Maitasunaren ikasgaia» lanarekin.

Adin aldetik, jende gaztea da lehiaketa honetara ge-

hien hurbiltzen dena. Jardun taldeko kidea den Eva Alberdik adierazi duenez, «15-20 urte bitarteko gazteek idazten dute batez ere. Gutxiago dira 30etik gorakoak, baina batzuk jasotzen ditugu hala ere. Iaz, 70 urteko pertsona baten eskutitza ere jaso genuen. Asko

poztu gintuen horrek».

Sari nagusia Imanol Sorondo hernaniarrak irabazi du, baita irakurle gazteek emandako saria ere. Gutun honetan irakasle batek bere ikasle batenganako ezinezko amodioa kontatzen du. Bigarrena Aintzane Arrieta aulestiarrak lortu du «Glory» gutunarekin. Pilotari batetaz oso maitemindua dagoen neska batek Ameriketara joan den mutilarekiko amodioa deskribatzen du. Bergarako eskutiz onenak

«Eskutiz gehienak oso tragikoak dira, alaiagoak egitea ere gustatuko litzaiguke»
EVA ALBERDI

ere sari berezia jaso du, Iñigo Iñurrategik egindako «Hurrengo whiskyxa hire izenian».

Aurtengo epaimahaia Jo-xean Sagastizabal eta Patxi Zubizarreta idazleek, Arant-zazu Loidi kazetariak eta Asier Serrano poetak osatu dute. Irabazlearen lana ba-loratzean, idazkera txukuna, xehetasun handikoa eta oso literarioa dela esan dute, amodio ezinezko baten kronika ederra. Bigarren lan sarituari dagokionez, epai-leek bere naturaltasuna, errealtasuna, estilo zuzena, zehatza eta freskotasuna az-pimarratu dute. «Gutun ge-bienak oso tragikoak dira, ia denak desamodioa eta tragikotasuna erabiltzen dute gai gisa. Epaimahaiaik freskotasun pixkat eskatu beharko du. Erotismoa, maitasunaren alde alaia...



gutunetan agertzea nabiko genuke, ez soilik alde iluna», adierazi digu Eva Alberdik.

Sariketa arrakastatsua

LEHIAKETAK izan duen erantzun onagatik galde-tzean, Jardun taldeak ikas-

tetxe eta euskaltegietan egi-ten duen zabalpena azpi-marratu du Eva Alberdik: «Abalik eta oibartzun han-diena lortu nahi dugu. Jen-deak atsegin du gainera bo-nelakoetan parte hartzea; kontuan izan hau ez dela literatur lehiaketa bain se-

rioa, ez duzu liburu bat idatzi behar. Hau arinagoa da. Baina lan literarioa egin behar da; eta antzema-ten da gebienak ez direla benetako gutunak, lebiake-tarako idatziak baizik.

IDOIA TORREGARAI

UBiko irakasle batek maite duen ikasleari zuzendutako eskutitza izan da saritua. (A.: G. Garaialde).

aizu!ren harpidedun izan nahi dut!

Izen abizenak.....

Helbidea.....

Tnoa..... P.K.....

Herria.....

Herrialdea.....

Bankua.....

Sukurtsal zk.....

Kontu zk.....

Urtebeteko harpidetza: Hego Euskal Herria eta Estatua: 6.500 pta. Ipar Euskal Herria eta atzerria: 11.500 pta.

Diputazio kalea, 3 - 1.
40009 Bilbo - Tel. (94) 423 15 52




L I B U R U A K



«HISTORIA DE EUSKAL
HERRIA» (II)
XOSE ESTEVEZ

TXALAPARTA, 323 or.
Euskal Herriaren historiari buruzko bigarren liburukia plazaratu du Xose Estevezek Txalapartarekin, XVI. mendetik XIX. mendera bitarteko bidaia luzea proposatuz. Ugariak dira jasotzen dituen gertakariak, nola ekonomia alorrekoak hala gizarteari buruzkoak edo politikaren ezpalekoak, egun bizi ditugun gertakariak ulertzeko funtsezkoak.

Lugoko Quiroga herrian jaioa, Xose Estevez historia irakasle lanetan ari da Deustuko Unibertsitatean. Hainbat liburu plazaratu ditu honen aurretik ●



«MADAME
DOUBTFIRE»
ANNE FINE

ITZULTZAILEA: IÑAKI
MENDIGUREN
ELKAR, BRANKA SAILA,
195 or.

Daniel langabezian dagoen aktore bat da eta guraso dibortziatua; Miranda bere emazte ohiak mila traba jartzen dizkiolako ia ikusi ezin dituen hiru seme-alaba ditu. Mirandak neskame bat kontratatu nahi duela eta, ideia zoro eta xeble bat du: emakumez mozorrotzea, lanpostu hori lortzeko.

Autorea egile ezaguna da haur eta gaztetxoan munduan, bai Ingalaterran bai handik kanpora sari ugari irabazitakoa ●

JOSE LUIS OTAMENDIREN BEGIETAN

Nora itzuli?

Badira premia historiko bati erantzutera datozen sentsazioa sortzen duten liburuak, geure izate partikular zein kolektiboaren larritasuna eta kinka agerian jartzen dutenak gordin-biluzean... eta tristura infinito bat. Maisulanak dira horrelakoak askorentzat.

Sarrerako ipuinak («Denbora presentea eta denbora pasatua») liburuko joku-arau nagusiak erabakitzen ditu: denboraren kurpil-zoroaren morroi ibili beharra finis-terretatik harantz. Erbesteak kategoria sinbolikoa, metafisikoa hartzen du. Hurrintasuna atzera ez daitekeen madarikazio bilakatu da: joan zen hura dagoeneko ez da ordukoa, sorterrria aldatua dago, beraz ezinezkoa da itzultze betea, ezintasuna bakarrik —eta bakardadea— gailentzen zaio denborari. Gabeziaren poemarioa, exilioena, deslaitasunaren lirika.

Erregistro ugari baliatuz (saudadea, lirikotasuna, erreferentzi metaliterarioak...; ironia, paradoxa, didaktismoa

inoiz...), lehengo ekarriak (hainbat poema aurreko liburuetatik ezagun zaizkigu) eta oraingoak uztartuz ideario poetiko-politiko trinkoa zahar-berritzen du Joseba Sarrionandiak, mundu gero eta umoagoa ehuntzen du, munduarekin intimitate minetan bizi da poeta. Manifestu handi baten aurrean gaude, tratatu moral bat.

Poemek egitura soila, sintaxi diskurtsiboa dute gehienetan, batzuk konzeptualago baina hari narratibo batek darama maizenik gogoetaren zaina. Fatala da poetarena bezala gure herriaren patua («Kiormantzidxa» poema zoragarria horren erakusgarri), eta fatala da oraina; ez gara libre. Poesia biluzte ariketa da, eta koldartasun eta hipokrisia nabarmentzeko tresna ere bai. Eta borroka duintasun aldekoa da, eta errendatzea da azkena. Txipia da poesiaren ahalmena baina gaur, atzo eta bihar baino ezinbestekoago zai- gun liburua eman digu.

«Ortzmugen handikaldean irlak eta



«HNUY ILLA NYHA
MAJAH YAHOO»
JOSEBA
SARRIONANDIA. ELKAR

derrotak/ bilduko ditugu./ balea zuriaren kontra ekinen dugu, irabazi ezin arren/ akaberara arte burrukan./ Ikas ditzagun marinelen kantak, asma ditzagun/ marinelek kantatzen ez dituzten kantak».

ZORROTZ MORROTZ

ZORROTZAKO KULTUR ALDIZKARIA 2. ZIKLO/1996-ko URTARRILA



Bilboko Udala eta euskara

«ZORROTZ MORROTZ» ZORROTZAKO KULTUR ALDIZKARIA 1996KO URTARRILA, 2. ZENBAKIA

UNIBERTSALAKO...
2
ANATOMIA...
LEONARDO...
ZORROTZAKO...
FURIA...
EUSKARA...
ELKAR...
66
CORONA...
7
BILBO...
MURCIA...
27
MURCIA...
10
FURIA...
10
ZORROTZAKO...
12
DUNA...
11

«ZORROTZ MORROTZ» ZORROTZAKO KULTUR ALDIZKARIA 1996KO URTARRILA, 2. ZENBAKIA

Zorrotzako Euskal Txokoak kaleratzen duen aldizkariak bigarren zenbakia bete du, hamabi orrialdeetan zehar auzoko hainbat berri aurkeztuz: umeentzako ikastaroak direla, argazki lehia-keta, bertako apaiza den Jesus Lopez Villalbarekin elkarrizketa, Turutarra fanfarearen hamahiru urteko ibilbidea, Bilboko metroa, berri laburrak, ipuina...

Kexu azaltzen dira Euskal Txokokoak alabaina, beren proiektua kinka larian delakoan: «Proiektua finkatzen hasita dagoenean, dirulaguntza handitu ordez, txikitzen digute» ●

«PAYS BASQUE» HIRU HILABETEKARIA LEHEN ALEA, 1996KO OTSAILA-APIRILA

Milan Presse eta «La semaine du Pays Basque»-ren artean hiru hilabetekaria plazaratu dute, koloretan eta 100 orrialdeko luzapenez. Iparraldeari heltzen diote bete-betean: Sara-Zugarramurdi-Urdaxeko triangulua dela, anguluen arrantza, Niko Etxarten rock and rolla, Baionako Euskal Museoa, euskararen irakaskuntza, ikurrinaren historia eta erabilera, rugbya... gai ugari eta anitzak erakusten da aldizkarian zehar. Guztiak frantsesez izkiriaturik datoz.

Richard Clavaud ari da «Pays Basque»-n zuzendari lanetan, eta Jean-Paul Bobin erredaktore buru moduan. Hauekin batera, lan talde batek burutu du alea ●




Zer duzu, Nuria?

Gloria Llobet

«ZER DUZU NURIA?» GLORIA LLOBET ITZULTZAILEA: ALES BENGOETXEA ELKAR, BRANKA SAILA, 144 or.

Nuriaren ama gizon alargundu batekin ibiltzen hasi eta elkarrekin bizitzea erabakitzen dute. Nuria eta bere bi neba-arrebek etxe berria eta beste familia bat topatuko dute. Aldaketa hau ez zaio erraza izango, eta kasketekin erantzungo du.

Gloria Llobetek (Bartzelona, 1957) gazte literatura-ko «Villa de l'Elia» saria irabazi zuen eleberr honekin. Bi ezaugarri nabarmen-tzen zaizkio: gazteen psikologiaren ezaguera eta idazkeraren freskotasuna ●

«MEZUA» ENRIQUE PEREZ DIAZ ITZULTZAILEA: MARI ELI TUARTE ELKAR, XAGUXAR SAILA, 77 or.

Enrique Perez Diez La Habanan jaio zen 1958an; kazetari eta idazlea da, gazte eta haurrentzat liburu asko idatzia. Kuban alor honetan ematen den saririk garrantzitsuena irabazia du.


Hektorren inguruan harilikatu du istorioa honakoan: mutikoak ezin du bere gelatik irten, istripu baten ondorioz. Amonarekin bizi da eta Koba katuarekin. Gelako leihotik Laura izeneko neska ikusten du aurreko etxean. Neska oso triste dago aitak etxetik alde egin diolako. Hektorrek laguntza eskainiko dio ●




Hontza

LIBURUDENDA

Okendo kalea, 4
Tel. 42 82 89 Faxes: 43 12 56
20 004 DONOSTIA



«101. PIRATA»
 SUSANA RAFART
 ITZULTZAILEA: KARLOS
 SANTISTEBAN
 EDEBE, GILTZA SAILA,
 58 or.

Txomin pirata izateko jaioa da, eta egunero, ispiluairean aurrean, etsaiei egin behar-ko dizkien keinu beldurgarriak errepikatzen ditu. Bere herriko itsasoan ordea, ehun piratentzako lekua besterik ez dago...●

Rocka eta maitasun-abestiak

Bada azken bolada honetan euskal musika alorreko mugimendurik Ipar Euskal Herrian. Denok ezagutzen ditugun kantu zahar edota herrikoietatik urrun aritzen diren taldeek ordea, ez dute oihartzun handiegirik mugaz bestaldean. Batzuetan Hego Euskal Herriko diskete handien arreta jasotzen dute, baina gehienetan zigilua sortu edo zuzenean produkzioaren ardura taldeak berak hartzen du. Egoera honetan kaleratu da Keñu.

Aurretik bazuten CD tiki bat argitaraturik, «Ekipetan», saritua eta EKeren eskutik kaleratua, 1993. urtearen ondarean.

Hamar abesti biltzen dituen disko berri honetan oso estilo ezberdinak jorratzen dituzte, folk kutsukoak, adibidez diskoari izen ematen

dion «Ileak harro»; bertsoak, Benito Lertxundiren «Gure bide galduak»; rock joerakoak, «Euskadi»; maitasunezkoak, «Zirriboraka»; eta abar.

Abestien hitzak eta doinuak eurek sortuak dira, Lertxundirena eta Manex Mutturbeltzek idatzirik «Gero geroago» izan ezik. Gai aldetik, maitasunak du ohorezko lekua betetzen, baina bizitzaren zergatia, mundu gogor honen gaineko planteamen- duak ere egiten dira.


Sei lagunek osaturiko alde honen abestiak musika-mailan ondo jantzirik ematen zaizkigu, eta diskoak badu halako batasun edo oreka bat, rocka eta maitasun-abesti lasaien artean aurkitu beharrekoa. Taldeak trinkotasuna erakusten du, halako esperimentzia arrasto bat, zenbait kide aldatu badira ere, igarri



«ILEAK HARRO»
 KEÑU

egiten baita abestiak eurek paratuak izanik, badela halako jarraipen bat lehen diskotik hona, agian finkatu egin da lehenengoan erakutsiriko nondik-norakoa.

Ezuste atsegina, mugaz beheti ere ezagutzea komeni dena, disko mailan zein kontzertuak emateko.



«USTELKERIA»
 NEGU GORRIAK
 ESAN OZENKI


Negu Gorriak «Ustelkeria» abestia dela eta, musika taldearen aurka jakinarazitako sententziari erantzun asmoz, erresistentzia kutxa bat zabaldu zen, eta horrekin ba-

tera, eskuetan dugun konpaktoa kaleratu.

Ekoiaren mugatukoa da, guztira 1.500 ale kaleratu baitira, hamalau abestirekin. Denetarik aurki daiteke: lanari izena ematen dion «Ustelkeria», «Jainkoak gorde beza lehendakaria» («El chi-

co más palido de la playa de Gros eta «El Dia de la bestia» CDetatik hartua), «Izokin euskaldun baten istorioa (1994ko Nafarroa Oinezeko doinua izan zena), «Bizitza zein laburra den», «Apatxe gaua», «Borreroak baditu milaka aurpegi», eta beste ●

BAQUE KAFEAK ESKEINITAKO ARGIBIDE KAFEZALEAK



Afrika kontinentean Robusta Kafea hazten da bereziki, gorputz sendoa du eta zapore gogor eta mikatza. GINEA, SIERRA LEONA, BOLIKOSTA, GANA, TOGO, BENIN, NIGERIA, GABON, KONGO eta ERTAFRIKAR ERREPUBLIKAN hazten da. Kafe hau, neurri txikian erabiliz gero, osagarri bikaina gerta daiteke Kafe SUABEen nahasketa on batean. BAQUE KAFEA suabe... suabea



Poz handia ematen digu kafeaz dakigun guztia zure esku jartzeak.



Otsailaren 27an, ikusleeta bitik bat esku-pilota finala ari zen ikusten. (Arg: Edurne Koch).

Asegarceren bi pareta

Duela pare bat urtetik hona ez zen profesional mailako pilota partidurik ikusten Euskal Telebistan. Asegarcerekin lortu zuten akordioak berriro ekarri dizkigu pilotariak pantailetara. Eskuz binakako finala, La 2 telebista kate espainiarretik eta ETB-1etik batera eskaini zuten, eta Hego Euskal Herrian 700.000 bat teleikuslek jarraitu zuten. Bi pareta egin ondoren tantoa lortu dute Asegarcekoek.

DUELA hilabete, otsailaren 27ko arratsaldean, Hego Euskal Herrian telebista aurrean zeudenetatik bitik bat Beloki-Capellan eta Arretxe-Etxanizen arteko eskuz binakako finala ikusten ari ziren, guztira 700.000 ikusle inguru bildu zituen partidua. Egun horretan, *zapping* egiten zuen edonork, bi telebista kateetan La 2, espainiarrean eta ETB-1ean, gauza bera ikus zezakeen.

Bi urte pasatuak ziren ETB-1ean esku-pilota profesionalik ikusten ez zela, La 2en bakarrik ikus zitekeen azken urteotan. Baina, ETBkoek Asegarcerekin lorturiko akordioaren ondorioz, abendutik hona pilota profesionala ikus daiteke Euskal Telebistan. Akordioa urtebeterako, eta luzatzeko aukerarekin aurrikusiz sinatu zuten. Guztira hogeita hamabost partidu eta, nahiz

pala nahiz esku-pilotako hamaika final emateko aukerarekin.

Bai espainiar katean, bai hemengoan ere, ezberdintasun txiki batzuk kenduta, eman zuten irudia bera da. Honen arrazoa Asegarce bi kateekin duen akordioan datza, izan ere, seinalea —baita Euskal Telebista— erosten dutena kasu honetan—, Espainiako telebistaren esku geratzen da

ekoizpena, baina Mikel Olazabal kazetariak argitzen duenez «guk bi kamera eta gure kazetariak eramateko aukera dugu. Finalean unitate mugikorra eraman genuen, gure nortasuna emateko eta aldi berean irudia bereizteko».

ETBk, La 2 baino audientzia hobeagoa izan zuen (sei puntu gehiago). Olazabalen iritziz pilotak, euskal kirola denez, jarraitzaile gehienak euskaldunak dituelako izan zen, baina «komentaristen izaera, usadioa eta norberaren erabaki pertsonala ere kontuan izan behar dira. Normala da, pilota, estropadak, herri kirolak... eta antzekoekin audientzia handia lortzea».

Berrikuntzekin aurre artu nahiean

TELEBISTAK pilotari bultzada berezia eman diola ukaezina da. Euskal Telebista izan zen aitzindari kirol honen emankizunetan, baina orain ez dago bakarrik. Ikusleak erakartzeko asmoz, lehiaketak asmatu zituzten, orain Olazabalek dioenez lehiaketak leku guztietan daudenez, «guk orain martxan zerbait berezia jarri dugu, garai batean lehiaketa egin genuen baina orain leku guztietan egiten da. Sistema informatikoa egokitu dugu, zenbat pilotakada, zenbat minutu, zenbat tantu... agertzeko pantailan. Errealizazioan ere maila ona lortu da, frontoiak, bai argi bai pintura aldetik egokitu dira, eta orain grafismo aldetik egin nahi dugu gure ekarpena». Bi telebistekin hurrengo zita eskuz banakako txapelketan izango da.

ARRITXU ZELAI

Xabier Arenas: «Ez dakit zergatik, baina ia argiztatzailerik ez dago»

E TBko programa anitzen argizatzeaz arduratzen den azpeitiarra dugu Xabier Arenas. Argazkigintzan hasi, zinema amateuran aritu, kamera lanak egin eta egun, informatibo, zuzeneko emanaldi, «Arralde», «Firin Faran» eta beste hainbat saio argizatzen ditu.

Saio guztiak argi eta garbi iristen dira gure etxetara, zer erantzukizun du bonetan argiztatzailerik?

Argirik ez badago ez dago irudirik. Telebista, irratitik eta beste komunikabideetatik bereizten duena irudia da; eta irudia argia da batik bat. Hala ere, ez pentsa argia jartzea gauza erraza denik gero, izan ere programa ba-

koitzak bere berezitasunak ditu eta programa zuzendariren, errealizadorearen eta eszenografoaren eskakizunetara moldatu behar izaten da.

Kamera izatetik argiztatzailerik lanetara, azken hau lan bobea ote?

Nik bi lanak ditut gustuko, baina, halaberrez ETBn dauden kamerak platoko programez eta kirol erre-


transmisioez arduratzen dira soilik. Honela, erreportaiak eta beste zenbait gauza egiteko aukerarik ez dute, lan hori produktora independenteen esku baitago. Gaur egun ETBn kamera izateak ez du aliziente gehiegirik.

Argiztatzailerik izan nahi duenak etorkizunik ba al du?

Ez dakit. Oso kuriozoso da baina askotan komentatu izan dugu kamerak, errealizadoreak non-nahi aurki ditzakezula, baina argiztatzailerik ez da sumatzen. Lan honetan aritzen garenak zenbatuz bizpahiru izen besterik ez dira irituten. Ez dakit jendeari lan hau ez zaion gustatzen edo... ez dakit zer arraio pasatzen den.

Lan bonetan urte asko daramatzazu, zer aldaketa izan dira?

Teknika aldetik dena informatizatu da. Lehen dena eskuz egin behar zen, baina orain estudio bateko 200 fokoak nahi dituzun bezala antolatzen dituzu. Azken batean informatizazioaren kontuak. Hala ere, aldaketa nabarmenena kameraren arloan jazo da, izan ere kamerak sentsibilitate handiagoa dute eta askoz argi gutxiagorekin emaitza hobekak ematen dituzte.



Argizatzea ez dela erraza dio Xabierrek. (Arg: G. Garaialde).

JOSU ARANBERRI

TXORI BATEK

ESAN DIGU

Europako telebistentzako kuota gogorragoa

Estrasburgeko Europako Parlamentuan harturiko erabakia gauzatu gero, Europako Batasuneko herrialdeetako telebistek izan behar duten produkzio europarraren kuota gogortu egingo da.

1989ko Mugarik Gabeko Telebista deituriko arteztarauaren arabera, telebistetako produkzioaren % 51k gutxienez europarra izan behar zeen. Baina, arteztarauan «*abal den heinean*» zioen klausula zegoenez, ondorioz EBko herrialdeek ez zuten betetzen araudia. Orain, Estrasburgko azken erabakian, baldintza hori kentzekoaren alde agertu dira, Ministro Kontseiluak horrela berresten baldin badu behintzat.

Kontuan izanik, % 51ko kuotaren barne ez daudela ez eztabaida saio, lehiaketa, informatibo nahiz estudioan eginiko beste hainbat saio, telebisten programazioaren nondik norakoa asko aldatuko da. Egun, Europako telebistetan ikus daitekeen produkzio guztiaren % 82 inguru EEBBetan eginikoa da.

■ Robin Hooden abenturak arratsaldero

«Euskadi Gaztea» saioan barne, arratsaldero «Robin of Sherwood» telesaila eskaintzen dute. Telesailean, jakinikoa den bezala, Robin Hood eta bere taldeak, Nottinghameko *sheriff*-aren aurka dituzten borrokak eta bestelako abenturak agertuko dira. Baina oraingoan, pertsonaia berri bat ere izango da, Huntigdongo Robert berau. Pertsonaia honen paperean Sean Connery aktore ezagunaren Jason semea izango da. Arratsaldero, «Euskadi Gaztea» ren barne, 15.35tan.

■ «Bill eta Ted-en abentura bikainak» marrazki bizi-dun berriak

Ostiralean eskainiko duten «Bill eta Ted-en abentura bikainak»-en marrazki bizi-dunen lehen atalean, «Txinatar abentura gazi abentura

bikaina» izeneko atala emanen dute. Telesailak bi gazteren gorabeherak kontatzen ditu. Bill eta Ted denboran zehar alde batetik bestera garraiatuko dira, eta munduan dauden hainbat istorioez jabetuko. Gazte hauek Sokrates ezagutuko dute, Beethovenekin lan egingo dute, eta besteak beste Cristobal Colonekin itsasoa zeharkatuko dute, hauek eta beste hainbat abentura ostiralero.

Bestalde egun berean, eta aurrekoa bezala «Superbat Telebista» saioaren barnean, «Space Precint» telesailaren «Barreneko sua» atala eskainiko dute. XXI. mendean giroturiko telesail honetan, Demeter Cityn planetan New Yorkeko Brogan tenienteak bizi dituen gorabeherak agertzen dira. Hau eta aurrekoa, ostirala 23an, 17:20etatik aurrera.



■ Hauteskunde garaiko saio bereziak

Hauteskondeekin batera, alderdi politikoeekin eginiko eztabaida eta elkarrizketa saioak izan ohi dira. ETB-koek elkarrizketei eguerdian egingo die tarte, hasteko, astelehenean Eusko Alkartasunako ordezkarien txanda izango da, asteartean Herri Batasunarena, eta asteazkenean aldiz

Partido Popularrarena. Hauteskondeetara aurkeztu diren alderdien arteko eztabaida saioaren eguna eta ordua ezberdina izango da, astearte gauean izango baita, Euskal Herriko alderdi politikoak aurrez aurre jarriko dituen telebista saioa. Egunero eguerdiko 12:55etan alderdi politikoe-kin elkarrizketa saioa, eta eztabaida saioa, asteartea 27an, gaueko 22.55etan.



Z A P P I N G

Festetan egiten diren gehiegikeriei inguruko eztabaida Kateberri Eibarko Telebistan

TELEBISTETAN hain ezagun ditugun hauteskunde eztabaida saioak alde batera utzi eta beste eztabaida mota batekin datorkigu Kateberri Eibarko Telebista. Oscar Mondragonek aurkeztuko duen «En boca de todos» saioan jendeak festak nola hartzen dituen aztertuko dute. Herriko tabernariak, festa antolatzaileak, Udaleko ordezkariak, herriko hainbat talde eta txosnetako partaideak, festetan egiten diren gehiegikerien inguruko analisi sakon eta luzea egiteko asmoz. Saioaren hasieran gaiaren aurkezpena egingo dute, ondoren herri-tarren iritzia agertuko duten ihaute-rietan grabatutako hainbate iritzi eta

elkarrizketa azalduko dituzte eta azkenik partaideek eztabaidari ekingo diote. Hau guztia hilaren 28an, asteazkenean, ikusi ahal izango da ilunabarreko 21:15etan Kateberri Eibarko Telebistan.

Bestalde, telebista berean, martxotik aurrera saio berria izango dute. Beste telebista kateetan hain modan dauden sukaldaritza saio berri bat ikusteko aukera izango dute eibartarrek. Berrikuntza hau, eguneroko informatiboaren barnean eskeiniko dute.

Saio ezberdinak ATBn

Arrasate Telebistan «Elkartean» saioa izango da osteguna, hilak 29an. Egun

honetan Herrigain elkarteari buruzkoa izango da. Programaren lehen zatian elkarte horretako bi pertsonaiei elkarrizketa egingo zaie eta ondoren sukaldean plater gozo-gozoa prestatu beharko dute. Horren arabera, epaimahai batek emandako puntuazioa jasoko dute eta jasotako puntuazioaren arabera finalerako sailkatuko dira hala ez.

ATBn, baina asteazkena otsailaren 28an, «Nor-Nori-Rock» saioaz gozatu ahal izango dute musikazaleek. Kaitin Allende eta Lierni Uribarrenek aurkeztuta hamabostean behin egiten diren kontzertuen irudiak, bideo-klip ezberdinak, bertako taldeen partaideei egindako elkarrizketak eta atzerriko talde bati buruzko erreportajeak dituzte prestatuak.

Ereindakoa jasotzeaz Arrasate Irratian

Urtebete besterik ez darama Arrasate Irratiak martxan, baina urtebete honetako uzta bikaina izan dute: bi irrati tailer, irratia-aren inguruan ia ehun lagun, entzuleen harrera ona eta azkenekoa, lortzekotan diren emititzeko baimena.

ARRASATE Irratia emititzeko baimena lortzeko atarian dago. Orain arte beharrezkoak izan diren urratsak bete ondoren, azken bat besterik ez zaie geratzen baimen ofiziala lortu ahal izateko. Udal irrati honek duen urtebeteko ibilbidean, piskanaka piskanaka programazioa osatuz joan dira. Goiz partean, irratiko lankideetako bat den Patxi Monteroren hitzetan «programazio generalista eta profesionala» izango dute, eta gau

partean eta larunbatetan irratiko laguntzaileek eginko irratsaioak izan ohi dira gehienetan.

«Alde batetik, herriko informazioa eta bestelakoak gaiak landuko zituen irrati serioa nahi genuen, baina bestaldetik, garbi genuen herriari ere proiektuko partaide izateko aukera eman behar zitzaiola», eta lortu ei dute. Hori baieztatzen du irratia-aren urtebeteko historian izan dituzten hamasei programa eta, duten lagun-



Arrasate Irratiko estudioan ehun lagun inguru aritu dira urtebetean. (Argazkia: Garikoitz Garaialde).

tzaile talde zabalak.

Herritarren partehartzea lortzeko, garrantzi handia izan dute antolatu dituzten bi irrati tailerrek. Lehenengo tailerretik, lau saio berri ateraz ziren, eta antolatu berri den bigarrenetik, beste horrenbeste aterako direla-koan daude. Guztira, bertako langile, unibertsitate eta

zinema eta bideo eskolako beka-dun, eta laguntzaileen artean, ehun pertsona inguru dabil-tza Arrasate Irratian.

Orain, udal irratikoek jarri duten hurrengo helburua, 9:00etatik 16:00etara etenik gabe emititu ahal izatea da.

ARRITXU ZELAIA

B A G A K

Irratiaren II. astea Altza

Casares Kultur Etxeko Altza irrati tailerrak, irratia-aren bigarren astean hainbat ekitaldi antolatu ditu. Otsailaren 21ean mahaingurua izango da, irratia eta publizitatea gaitzat hartuz, solaskideak, «Publizitate komunikabidea errentabilizatzeko beharrezkoa da edo, aldiz, komertzia-lean gehiegikeriak mezua oztopatzen du?» galderari erantzuten saiatuko dira, arratsaldeko 19:30etan.

Ostegunean eta ostiralean ere mahaingurua izango da. Osteguneko gonbidatuak, 15:30etan «La radio tiene nombre de mujer» izenburupean arituko dira. Eta os-

tiraleko gaia «Euskara eta irratia» izango da, arituko direnen artean Euskalerrria Irratiko Mikel Bujanda, Euskadi Irratiko zuzendari den Julian Beloki, Herri Irratiko programazio zuzendari den Txema Auzmendi, Arabako irrati bateko Edu Lopez Luzuriaga, eta SER Irratiko Kultur Badia irratsaioaren aurkezlea izango dira. 19:30etan izango den mahai inguruan, moderatzaile lanetan, Donostiako Bagera euskara elkarte-ko Joseba Barriola arituko da.

Bestalde, mahainguru hauetaz gain, 20ko eta 60ko hamarkada bitarteko irrati aparailuen erakusketa izango da Casares Kultur Etxean martxoaren 1era arte.

A U R P E G I A



Goizalde Urdanpilleta (Xorroxin Irratia)

Ez zuen irrati esatari izateko ikasi, irakaslea baita berez, baina lanik gabe geratu zenean, Xorroxin Irratian bere herriko berri-emaile izateari heldu zion. Frogatu asmoz hasi eta hiru urte daramatza

bertan, «irratia eta irakaskuntza-aren artean aukeratzea zaila izango litzateke. Biak politik dira. Irratiko lana oso gogokoa dut, gogorra da baina»

Xorroxin Irratian hasieran berriemaile gisa urtebete igaro ondoren, goizetako «Goizargi» magazinean sartu zen buru belarri. Orain aldiz, eguerdiro egiten du orduerdiko saioa. Berak airtortzen duen bezala, irrati ibilbide laburrean denetarik egin du, nekazaritza saioak, haurrekin lehiaketak, magazineak eta behar zen beste edozer ere bai.

OTSAILAK 23 ostirala

JAIALDIA DONAPALEUN

Gaur Donapaleun **jaialdi latino-amerikarra** ospatuko da. Jaialdi honen barruan, gaueko 22:00etatik aurrera Boli-viako **Ishkamuaia** taldeak kontzertua eskainiko du.

BERTSO AFARIA BILBON

Gaur gaueko 21:00etatik aurrera, bertso afaria izango da Bilboko Kafe Antzokian. Bi bertsolarik jardungo dute bertan afarian: **Xabier Euzkitzek** eta **Jon Sarasuak**.

OSKORRI ETA MASKARADA

Oskorri taldeak, Maskaradaren laguntzaz, «**Landalan**» ikuskaria aurkeztuko du gaur 21:00etan **Irungo Amaia Kultur Zentruan**. Bihar, ostera, **Basauriko**

Social Antzokian aukeztuko dute, arratseko 20:30etan.

ERAKUSKETA SOPUERTAN

Sopuertako Enkarterrietako Museoan, «**La pieza del mes**» erakusketa saioaren barnean, **Arenaza kobazuloko arpoia** erakusketa dugu ikusgai. Hilaren 29ra artean zabalik.

LOS PLANETAS KONTZERTUAN

Los Planetas taldeak kontzertua eskainiko du gaur 23:00etan Lasarte-Oriako Zulon. Bihar Algortako Gwendoline aretoan joko dute 22:30etan.

ERAKUSKETA BASAURIN

Kultur Basaurin **Jose Manuel Horna argazkilariaren «Jazzografias»** ize-



Xirrixti-Mirrixti antzerki taldeak bere lanik berriena aurkeztuz jarraitzen du herriz herri. Otsailaren 25ean, hain zuzen, Miarritzeko Colisee antzokian taularatuko du «India Beltzak» antzezlan. Pantzo Hirigarai dugu obraren idazlea, eta eszena zuzendariak, berriz, Olatz Beobide eta Eneko Olasagasti. «India Beltzak» komedia da, amodioz, erokeria eta maltzurkeriaz betea: Doña Adela Baigorriko Etxeazuko jauregi zahartuan bizi da, bakarrik, Don Estebe senarra India Beltzetar bat joan zenetik...

I H E S I

Peña del Moro

Cantabriako Ramales de la Victoria herria, Ason bailarako hiriburua, espeleologia alorrean aberastasun handia duten karezko mendiz inguratua dago. Paleolitiko garaiko artearen aztarnak dituzten leizezuloak topa genitzake beroietan: Covalanas, Cullalvera, La Haza, Sotarriza eta Venta la Perra.

Mendi-talde hauetako bat Calera eta Carranza ibaiek zedarritutakoa da. Mendi-talde honen punturik garainek Peña del Mazo (829 metro) eta Peña del Moro (778 metro) dira. Lerrootatik azken honen igoera proposatuko dizuegu.

Irteera eta helmuga puntu Ramales de la Victoria izan-

go dugu. Gaintitu beharreko gainbehera, 700 metro. Igoeraren azken zatian eskuen laguntza beharko dugu. Tontorrera bidean, pare bat ordu beharko ditugu.


Ramalesetik irten, eta bertatik hiru kilometrora dagoen La Pared auzora heldu beharko dugu lehenik, zeina Los Tornosera igotzen den errepidearen bazterrean dagoen. Zalantzarik gabe, askoz gomendagarriagoa da errepidetik joan ordez leizezuloen ondotik igarotzen den bide zaharretik joatea.

La Pared auzoari Pared del Eco horma harritsutik datorkio izena. Cuevamur haitzuloaren sarrera bertan egoteaz gain, Pared del Eco

da Cantabriako eskalada eskolarik nagusienetakoa.

Mendirra igo ahal izateko, hegoaldera joko dugu errepidean barrena, Calera ibai-ko zubia igaro arte. Hemen-dik bertatik, ezkerrean, bi-hurgune asko dituen bidezidorrean gora egingo dugu. Bide-banatze batekin egingo dugu topo eta eskuinera hartu, laster zelai eder batera helduz. Bideak gora egingo du, iturri baten ondotik igaro eta eskuinera gora jo. Eskuinera ditugun pinuak gurutzatu eta malkorretik behera datorren kanalean sartuko gara, zuzenean gora egingez.

Kanale maldatsu honek, Cuesta los Corrales gisa eza-



guna denak, gailurrera hurbilduko gaitu. Malda amaitu eta eskuinera edo ezkerrean egiteko aukera baino ez dugu izango. Ezkerrean hartu. Piztura arrasto batzuei esker, Peña del Mororen tontorrean izango gara ■

neko argazki erakusketa dugu ikusgai hilaren 15az geroztik, martxoaren 2ra bitartean.

OTSAILAK 24 MENDIKO ESKI IKASTAROA

larunbata Gaur eta biharko, eta martxoaren 2 eta 3rako, Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak

Mendiko Eski Ikastaroa antolatu du. Egitaraua teorikoa eta praktikoa izango da. Prezioa: 26.000 pezeta (1.040 liberra). Partaidetza 42 ikaslera mugatuko da. Ezinbestekoa da **aurten goi mendi federatu txartela** edukitzea.

LIN TON TAUN LESAKAN

Lesakako Atxaspi Ostatuak antolatutako kontzertu-sailak gaur izango du amaiera, **Lin Ton Taun** zestoarrek eskainiko duten emanaldiarekin. Hona, beraz, zita: Atxaspi Ostatuan, gaueko 23:00etatik aurrera.

GARAZIKO IHAUTERIAK

Garaziko ihauterien barruan, gaur arratsaldeko 15:30etatik aurrera **ka-lejira** izango da. 18:00etan, berriz, oinak dantzan gustora astintzeko, **erromeria**. Gaueko 22:00etan gazteenek **Bost Gehio** eta **Zpeiz Urdeiak** taldeen kontzertuarekin gozatu ahal izango dute. Jarraian Irrintzina plaza-taldearekin dantzaldia.

NACION REIXA-REN KONTZERTUA GETXON

Ilunabarreko 20:00etatik aurrera, **Nacion Reixaren** kontzertuaz gozatu ahal izango dugu **Getxo Antzokian**. Anton Reixak eta Kaki Arkarazok zuzentzen duten taldeak diskoa kaleratu berri du, eta lan berri hau aurkeztuko dute Getxon. Sarrera, 1.200 pezetakoa izango da.



Otsailaren 9az geroztik, hilaren 23ra bitarte, Ordiziako Barrena Kultur Etxean Jose Luis de la Igesiaren pintura erakusketa dugu ikusgai. Anoetan bizi den donostiar honek, bere jardun azkar eta sakonaren emaitza aurkezten digu beste behin, erabat autodidakta izan den jarduna, orain hamaika urte hasitakoa. Pintura adierazpide gisa hartuz gero, bertan errealismorako joera sumatzen dugu; hiriko kutsu handiarekin, baina natura baztertu gabe, honek eginkizun garrantzitsua baitu.

M O K O F I N A


Eperrak txokolatearekin

Negu parterako plater bikaina izaki, eperrak txokolatearekin prestatzeko modua eskainiko dizugu le-rootatik. Etxean «gonbidatu garrantzitsuren» bat baldin baduzu, plater aproposa duzu ondokoa, ahorrak fine-nak ere asetzeko modukoa baita. Sei lagunentzako moduko platera eskainiko dizugu, eta horreterako sei eper beharko dituzu: bakoitzarentzat bana.

Hartu eperrak eta garbitu ondo. Garbitu ostein, lotu itzazu eta gatzitu, barrutik zein kanpotik. Behin gatzitu ondoren, jar itzazu lurrezko kaxuela batean litro erdi pasatxo oliorekin su epeletan, eta gozatu eperrak uniformeki. Atera kaxuelatik go-

rritu bezain laster eta jarri plater batean. Egoketa-koi-pe berean frititu lau baratzuri-ale. Gehitu bi erramu orri, dezilitro bat ozpin, salda, zortzi piperrauts-ale eta bost iltze-kanela. Egosi bost bat minutuz kaxuelan, baina taparik jarri gabe. Behin bost minutu horiek igarota, gehitu horri guztiari eperrak eta amaitu egoketa.

Jarraian, har ezazu mahatsa (300 bat gramo gutxi gorabehera) eta zuritu ale bakoitza. Atera eperrak kaxuelatik, askatu eta jar itzazu lurrezko beste kaxuela batean. Bahe fin batean pasa prestatutako saltsa, eta jarraian bota berau eperrei. Gehitu horri guztiari urtutako berrogei bat gramo txo-



kolate. Egosi gelso-geldo ordu laurden batez, eta egoketa amaitu baino bost minutu lehenxeago erantsieziaiozu mahatsa. Bost minutu horiek igaro eta gero, mahaira zerbitzatzeko prest izango duzu.

Kaxuelan bertan zerbitzatzeko da egokiena. Baina azpil dotore batean zerbitzatu nahi izanez gero, jar ezazu eper bakoitza frijitu berritako ogi-xigorrean. Mahatsez apainduta, saltsa bota gainetik ■

OTSAILAK
25
igandea

NAFARROAKO BERTSO TXAPELKETA

Gaur 15:00etan, Baigorriko zinema-aretoan, Nafarroako

Bertso Txapelketako lehenengo kanporaketa burutuko da. Sei bertsolari: **Xalbador, Txomin Amorena, Esti-txu Arozena, Jexux Arzallus, Ekin-tza Landa** eta **Fermin Miura**.

LEGALEON GETXON

Legaleon antzerki taldeak «**El silencio de las xigulas**» obra taularatuko du iluntzeko 20:00etan Getxo Antzokian. Sarrera: 800 pezeta, 500 Gazte Txartela dutenentzat eta jubilatuentzat.

TXISTU KONTZERTUA

Areetako Eskoletako enparantzan, eguerdiko 12:30etan, **Marindad de Uribeko txistularien** emanaldia.

OTSAILAK
26
astelehena

OPERA BILBON

Bilboko XLIV. Opera Denboraldiaren barruan, gaur, otsailaren 29an eta martxoaren 3an, **Richard Wagner konpositorearen «El buque fantasma»** opera taularatuko dute **Bilboko Albia Koliseoan**. Friedrich Haider zuzendari lanetan, Sabine Hass eta Michael Pabst paper nagusienetan, eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoa musika jarriz.

OTSAILAK
28
asteazkena

PILOTA ASTEA ANOETAN

Gaur hasiko da «**Chiquita de Anoeta**»ren omenezko **I. Pilota Astea**. 19:00etan, Maria Antonia Uzkudun «Chiquita de Anoeta-k berak emango dio hasiera asteari, Udaletxean aste gutzian zabalik egongo den **Euskal Pilotaren Erakusketa** inauguratuz.



Hitz-Erdi taldeak «Izan ala...» obra aurkeztuko du hilaren 24an Andoingo La Salle Antzokian, 20:00etan. Hitz-Erdiko taldeak beraien eginiko obran, ikusleak Billy & Txespir-en lana taularatzeko espero du, eta eszenatokian lotan dagoen teknikoarekin egingo du topo. Hau dugu protagonista inprobisatua: jolasean hasi eta istorio xelebreetan murgilduko gaitu. Erdi clown eta komedia finean eskainia, poesia eta umorea nagusi dira. Zuzendaria Mikel Gorrotxategi dugu, eta antzezlea Inazio Tolosa.

L A N D A R E A K

Gain-beherakadari tamaina hartu

Landareei buruzko ikerketek inoiz baino emaitza degarriagoak lortzen dituzte azken urte hauetan. Emaitza hauek, noski, bertan inbertitzen den diruaren araberrakoak dira. Hau da, ikerketan sartzen den dirua, lortzen diren emaitza ekonomikoak edo hauen esperantzetara gero eta estuago lotua dago.

Landareen artean, etorkizun ekonomiko oparoenetakoa eskeintzen duen taldea baso zuhaitzena da, egurretako edo materialetarako landareak, alegia. Baso zuhaitzetan egiten ari diren ikerketen artean aipagarriak dira Errusian, Kandan eta Estatu Batuetan burutzen ari direnak.

Ikerlarien artean, denen gainerik nabarmentzen dena Alexis Shigo estatubatuarra da. Urteko lanaren ondorioz zuhaitzen bizitzaren bilakaera ulertzeko, CODIT teoria iraultzailea zabaldu du. Ikuspegi iraultzailea zabaldu arren, iraultzailea baino gehiago berria dela esan beharko genuke, zer iraulirik ez bait zegoen lehendik.

CODITa (Compartimentalisation Of Decay In Trees) «Zuhaitzen gain-beherakadaren Mugatzea» deituraz itzuli dezakegu. Bere ekarpen nabarmenena, pairatzen dituen zauriei aurre egiteko, zuhaitzek garatzen dituzten babes estrategiak interpretatzeko bidea da.

Hala, zuhaitzak edozein



zauri bere behin-betiko gain-beherakadaren hasiera bezela jo, eta babes mugak sortzen dituela badakigu. Ondorioz, errezago uler ditzakegu zuhaitzen enborhuts indartsuak, tximisten

ondorioak, inausketaren arrazamendua landareen aburutik eta ez gizakiaren burutik egitea, egurren egiturak eta bere aldaketak... ■

JAKOBA ERREKONDO

Jarraian, «Apostando por ellas» bideoaren proiektzioa eskainiko da. Bihar, aldiz, **Josu Beriainek** Udala Pilota Eskolaren helburuz hitzaldia emango du. Ondoren, diapositiba emanaldia: «Euskal pilota kulturaren ildotik».

BI IKERKETA BEKA

Eusko Ikaskuntzak «Angel de Apraiz» eta «Agustín Zumalabe» ikerketa bekak deitu ditu. Lehenengoa, Giza Zientzietako ikerketak bultzatzeko; bigarrenean, Zuzenbidea, Hezkuntza, Komunikabideak eta Natur Zientzietako gaiak. Lanaren memoria eta kurrikuluma otsailaren 28rako aurkeztu behar dira. **Proposatutako lanak urtebetekoa behar du izan gehienez.** Laguntza, 750.000 pezetakoa (30.000 libera).

BERTSO ESKOLEN TOPAKETA

Iragan astean otsailaren 21erako iragarritako **Usurbilgo eta Lasarte-Oriako**

bertso eskolen topaketa, zenbait arazorengatik atzeratu egin da. Azkenean, gaur izango da.

OTSAILAK

29

osteguna

«MAKALU» DIAPORAMA

Alberto Zerainek eta Juan Vallejok «Makalu» diaporama eskainiko dute gaur, arratseko 19:30etan, Irungo Amaia Kultur Zentroan. Zerain eta Vallejo Makalu'95 arabar espedizioko kideak izan ziren.

EMAKUMEEN ALDEKO VII. JARDUNALDIAK

Getxoko Emakumeen Aldeko VII. Jardunaldien barruan, **Carmen Sarmientok hitzaldia** eskainiko du Getxo Antzokian, iluntzeko 20:00etan. Gaia «**Pekingoa baino lehen eta ondoren**» izango da.



Platero y Tu rock talde bilbotarrak bi kontzertu eskainiko ditu Bilboko Kafe Antzokian. Bata hilaren 28an, eta biharamunean bigarrenegoa. Bi emanaldiei gaueko 21:00etan emango zaie hasiera. Bi kontzertu hauek, zuzeneko diskoaren grabaziorako erabiliko dituzte Platero y Tu-koek. Bi egun horietarako aurretik prestatutako planik ez baduzu, beraz, baduzu nora jo eta kontzertu ederra non entzun.

O S A S U N A

Animaliekiko beldurra

Animaliek lilura eta magnetismo handia sortzen dute umeengan, eta arraroa da haurrak maskota moduan animalia bat edo beste ez edukitzea (hartzak, katuak, txakurrak, untxiak eta abar). Baina gauza bat da panpina edo pelutxea, eta oso bestelako kontua animalia hori bizirik baldin badago, maite izan arren, etxeko txikiak sarritan beldurra ere sentitu baitezake. Beldur edo izu hori oso normala da haurra txikia baldin bada, eta are gehiago animalia klase edo mota hori lehenengo aldiz ikusuten duenean. Baina zenbait kasutan beldurrak gehiegizkoak ere izan daitezke,

fobia edo obsesio bihurtzeraino.

Gurasoen papera oso garrantzitsua da, beldur horiek gainditzen erakusteko eta animalien konpainia (etxean edo etxe-inguruan egon ohi diren animalien konpainia, noski) apreziatzen ikasteko.

* Askotan gertatzen da gurasoek (batek bakarrik edo baita biek ere) animalia batekiko beldurra, gorrotoa edo nazka sentitzea. Kasu horietan sentimendu horiek geure seme-alabei ez transmititzen saiatu behar genuke.

* Izaten dira ume batzuk gurasoen aldetik oso babestuak egoten direnak, ai-

ta-amek edonon umearentzat arriskua ikusiko balute bezala. Gisa honetako haurrak animalien beldur izan ohi dira.

* Umearen beldurra ez da, hala ere, inoiz gutxietsi edo irrigarri utzi behar.

* Erakutsi umeari beste haur batzuk nola aritzen diren beren animaliekin jolasean, erakutsi animalien irudiak, eta ahal den neurrian animalion ohitura, jokabidea eta bizimodua azaldu.

* Haurrak txakurtxo, katu-txo edo beste edozelako animalia kumeren bat laz-tandu nahi badu, hartu hau-




rra eskutik eta lagundu egingo diogu laztantzen.

Dena den, animaliaengan konfiantza edukitzea gauza ona da. Baina umeak arriskuak ere ezagutu behar lituzke, eta jakin ez duela sekula ere ezagutzen ez duen zakur edo katuren bategana hurbildu behar ■

JABIER AGIRRE

Denborapasa

Gurutzegrama



EZKER ESKUIN: 1.- Osasungarri. 2.- Logura. Aluminioa. 3.- Landare mota. Bergarako auzoa. 4.- Etorkezuna. Barre. 5.- Goratu. Iraina. 6.- Zamorako ibilgailuetan. Sortzetiko gaisotasuna. Sufrea. 7.- Pluralean, arrain mota. 8.- Neukake. Tona. Bat. Oxigenoa. 9.- Pluralean, arreta. 10.- Ekialdeko borroka mota. Joaki naiz.

GOITIK BEHERA: 1.- Olariak. 2.- Lasaituta. 3.- Bizkor. Ahuntzaren ar. 4.- Osasuntsu. Garraio mota. 5.- Zuloaren erdian. Adar. Kontsonante bustia. 6.- Naizen hau. Garo, ira. 7.- Hegazti harrapari. Iodoa. 8.- Bokala. Modua. Nuen, hari. 9.- Landare loredua. Alderantziz, joan aditzaren erroa. 10.- Bizkaieraz, enara. Herri hizkeran, kokaina.

Kate hitzak

Letra kopuru desberdineko hitzak ageri zaizkizu ondoan. Helburua zera da, eskuineko taula osatzea, puzzlea bailitzan. Pasa ezazu hitz bakoitza dagokion lekura, kontuan harturik hitzok ezker eskuin eta goitik behera joan daitezkeela.



8 letra

Amandrea
Aranondo
Dortokak
Lemazain

7 letra

Arerioa
Aztalak
Eromena
Etakide

4 letra

Adur
Aida
Aita
Akta
Alua
Antz
Aroa
Atal
Azak
Azal
Bere
Bero

Elea
Eman
Eroa
Izan
Lore
Oker
Onak
Riga
Tabu
Ugao
Zale
Zero

3 letra

Aro
Bil
Ert
Ile

2 letra

Al
An
Oe
Oi
Ot
Ro
Ti
Ze

ERANTZUN zenbakidunak bete ondoan, pasa ezazu letra bakoitza dagokion goiko taulako laukira eta grabatuan ageri den herriaren izena, Nafarroako herri baten izena ageriko zaizu.



1	2	3	4	5	6
---	---	---	---	---	---

	Erakusten duena	Etsaia	Errazi	Gaiso	Abiatu	Goibel-tasuna	Emakume izena
Ahal zuten	Pl., intsektu mota	Mendialde ezaguna					
Geratuko dena	Frantses pintorea	Non atzizkia			1		
2							
Ikur			India			Kontso-nantea	
Beharra			Emakume izena			Nitrogenoa	
		Selenioa		Leherkari mota			
		Bazter		Uranioa			5
Beldurrak uzkurtua						Azkenekoa	
Dozena erdi						Putzu	
	Zaren hori			Begirada			
	Momentu	6		Bokala			3
Karta jokoa		Tarragonako hiria					Errep., gorotza
Egile atzizkia		Oxigenoa					
	Nuen, hari			Naizen honek			
	Bokala	4		500			
Neukan		Horditurik					

-Hieroglifikoa-



Ezagunak dira Aralarko ...

Aurreko asteko soluzioak

ADUNA										
	G	B	G							
	Z	A	K	U	T	O	A			
E	B	L	A	R	R	I	A			
I	R	T	E	N	B	I	D	E	A	
B	O	S	T	E	H	U	N	Z	O	
M	E	A	E	R	B	I	A			
S	E	R	B	I	A	I	D	U	N	
S	U	T	A	D	O	R	E			
M	A	I	R	U	A	E	R	I	K	
K	U	N	A	I	A	E				

Gurutzegrama

- EZKERESKUI: 1. Tabakogile; 2. Egonezinak.
 3. Lera. Ezen. 4. Er. Donosti. 5. Biz. An. ZT.
 6. Ikara. Azao. 7. Sor. Ezka. T. 8. Tabu. A. Idi.
 9. A. Akitania. 10. Kakati. AEK.
 GOTIK BEHERA: 1. Telebistik; 2. Agerikoa.
 A. 3. Bor. Zarbak. 4. Anadir. Uka. 5. Ke. O.
 AE. It. 6. Ozena. Zati. 7. Gizonak. A. 8. Ines.
 Zaina. 9. Lantza. Die. 10. Ek. Itotik.



Kate hitzak

B	I	B	A	L	A	J	A
S	A	R	E	A	G	O	L
O	S	A	G	I	L	E	S
S	O	I	K	A	R	A	T
A	T	R	U	K	D	A	R
G	A	U	R	S	A	R	I
H	N	N	G	O	B	I	A
O	S	T	E	G	U	N	A
B	I	A	I	R	A	K	A
I	A	I	O	E	I	H	I
M	A	R	A	S	A	I	A

Hieroglifikoa:

ADUNA

ERROBIKO PIRAÑAKO Komikia



Harreman sexualak eta HIESa

ELIZA katolikoak betidanik izan du jarrera gogorra harreman sexualei dagonienean. Plazer sexuala 'txarra' zela aldarrikatu izan du; seminarioetan bekatuarekin lotu izan da sexualitatea eta sekula ez dugu aztertu gure bizitzaren alor hau bere alderdi positiboetatik. Birsorkuntzaren baitan jarri izan du elizak sexualitatea, gainerako alderdi guztiak bazterreraz utzita. Baina gaur egungo sasoiotan arazo berririk ere ageri zaigu, eta HIES gaitzarena dugu horietako bat. Eta horren inguruan argitaratu berria da frantziar Gotzaien Batzarren agiria. Komunikabideek zera azaldu digute idazki hori dela eta, HIESaz ez kutsatzeko preserbatiboa erabiltzea baimendu dutela Frantziako gotzaiak. Baina berehala heldu da mugaz bi aldetako Gotzai Batzarren bozemaleen xehetasunak: ez omen zen hori frantsesek esan nahi izan zutena, interpretazio okerra egin omen dute komunikabideek.

HIES gaitza oso hedatua dugu, ordea, eta hortxe sortzen da arazoa. Zer egin harreman sexualetan HIESa harrapatzeko arriskua agertzen denean? Zer dio Elizak honetaz? Betidaniko diskurtsoa zera izan izan da, harreman sexualari ez zaiola oztoporik jarri behar. Eta bazuen bere lojika pentsakera horrek, jarduera sexuala birsorkuntzaren baitakoa izaki. Ikuspegi horretatik, preserbatiboa 'oztopoa' besterik ez da. Ondorioz, HIESik ez harrapatzeko sistema bakartzat abinentzia agintzen du Elizak, ha-



JOXE MANUEL BALENZIAGA
"BALENTXI"

Apaiza

rreman sexualik ez izatea. Garbi ikusten da beraz ikuspegi naturista mugiezina darabilela Elizak.

BAINA mundua aldatzen ari da, baita gizakiak ere. Eta gizakioi buruzko kontzeptuak. Gizadia ez da mugiezina, eta gizakion zerregina da geure nortasuna garatzea, beti ere

elkar-maitasuna eta erantzunkizuna aintzakotzat hartuz. Ondorio gisara, honako burutazio hauek laburbilduko nituzke:

Lehenbizikoa, harreman sexualek maitasunarekin zerrikusi eta lotura hestua dutela.

Bigarrenik, aldaketa handia izan dela harreman sexualen alorrean, birsorkuntzari dagokionez batipat. Aintzina mentalitateak zera agintzen zion: Jainkoak nahi ahala eta adina seme-alaba izan behar ditugu. Egun, aldiz, bikoteak du protagonismoa gai horretan, berak erabakitzen du zenbait seme-alaba izan, eta noiz. Bikotearen lagungarri gertatu da, beraz, teknika. Baina, eta hor dago kokka, maitasuna eta sexualitatea bereiztu egiten dira sarritan. Askotan sexualitatea ez da maitasunaren adierazlea, beste interes edo asmo batzuen baizik.

MUNDUA den bezalakoxea da ordea, eta tokatu zaigun mundu honetan bizitzen ikasi behar dugu. Ez dugu zertan kezkatu kristauok preserbatiboa dela eta. Kezkatu behar gaituena beste hau da: harreman sexualak eta maitasuna elkarri uztartuak izatea. Eta bikote batean bakarren batek HIES gaitza baldin badu, ez zait iruditzen egokiena harreman sexualik ez izatea. Elkarri maitasuna adierazten segiko badute segurtasun neurriren bat hartu beharko. Eta preserbatiboa da gaur egun sistemarik seguruena.

ESKAINTZA BEREZIA

ARGIA REN

HARPIDEDUNENTZAT

ARGIAren harpidedun bazara
ZEREN ZAIN ZAUDE?

Orain, gustoko tituloa eskura
dezakezu prezio ezin hobean

**gutxienez
kalean
baino
% 25a
merkeago**

**Kaseta
1.350 pzta.
Konpaktoa
1.875 pzta.**

**Nobedade honetaz gain beste
hainbat dago aukeran. Nahikoa
duzu dei bat egitearekin eta
behar duzun informazioa izango
duzu**



ESKAERA ORRIA

Izenburua	Prezioa	Kopurua	Guztira

Kobratu beharreko kantitatea

Transferentzia: Euskadiko Kutxa 3035 - 0036 - 19 - 0360030651 Ondorengo datuekin batera ingresoaren agiriaren kopia bidali behar da.

IZEN ABIZENAK _____
 KALEA _____ ZBKIA. _____ PISUA _____ LETRA _____
 TFNOA _____ HERRIA _____ KODE POSTALA _____
 PROBINTZIA _____ HARPIDETZA ZBKIA. _____ SINADURA _____

KONTUTIK _____ HARPIDETZA ZBKIA. _____

TITULARRAREN IZEN ABIZENAK _____ SINADURA _____
 BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____ SUKURTSAL HELBIDEA _____


KONTU KORRONTEA / LIBRETA _____
 SINADURA _____
 Entitatea Sukurtsala K.D Kontu zenbakia



ARGIA

Orain
ARGIaren
harpidedun
eginez gero
hauetako
konpakto,
bideo edo
liburu bat
eskuratuko
duzu

DOHAINIK



ARGIAren harpidedun izan zaitez

AMAIA ZUBIRIAren
KONPAKTOA

"NEGU GORRIAK IDEIA ZABALDU TOUR 95"
GARBIÑE UBEDA

"TAKOLO PIRITX ETA PORROT"
BIDEOA

HARPIDETZA TXARTELA

☎ (943) 37 15 45

FAXA: (943) 36 10 48

IZENA _____ 1. DEITURA _____

2. DEITURA _____ TELF. _____

HELBIDEA _____ POSTA KODEA _____

HERRIA _____ HERRIALDEA _____

BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____

SUKURTSAL HELBIDEA _____ SUKURTSAL ZKIA. _____

KONTU KORRONTEA/LIBRETA

Enfitatea

Sukurtsala

K.D

Kontu zenbakia

ARGIA: Zirkuitu ibilbidea 15

LASARTE-ORIA 20160

KIOSKOAN BAI

**%20a
MERKEAGO**

HARPIDETZA SARIAN
(BEZ barne)
Hego Euskal Herria
12.100 pztza
Ipar Euskal Herria
685 libera
Espainia 12.100 pztza
Beste Atzerriak
15.750 pztza
Airez 24.850 pztza

Euskal Kulturaren
URTEKARIA